

Nafarroako Gobernuko departamentuetako hizkuntza planen ebaluazioa 2019-2022

Izenburua:

Nafarroako Gobernuko Departamentuetako hizkuntza planen ebaluazioa 2019-2022

Edizioa:

2023ko ekaina

Argitaratzailea:

Nafarroako Gobernua

Argitalpenaren arduraduna:

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua

Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua

Aurkibidea

1. Sarrera eta lege esparrua	4
2. Euskararen egoera Nafarroan.....	11
3. Antolamendua eta metodologia	18
4. Datuen analisia	23
1. Langileen euskara gaitasuna	23
2. Prestakuntza.....	33
3. Herritarrekiko ahozko harremanak.....	36
4. Herritarrekiko idatzizko harremanak	40
5. Hizkuntza paisaia.....	57
6. Herritarrari zerbitzua ematen dioten kontratazio publikoak.....	61
5. Ondorioak	62

1. Sarrera eta lege esparrua

Nafarroako Gobernuko departamentuen hizkuntza plangintza garatzea 103/2017 Foru Dekretuan jasota dago, euskararen erabilera Nafarroako administrazio publikoetan arautzen duena, eta aipatzekoa da Dekretu honek lehen aldiz ezarri duela Foru Administrazioaren hizkuntza planak egiteko beharra. Ildo beretik, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari dagokio departamentuen artean koordinazio organo moduan aritzea, haiei aholkua ematea eta haiekin elkarlanean aritzea hizkuntza plangintza garatzeko.

Nahiz eta ele biko zerbitzua sustatzeko hainbat ekimen egin izan diren Nafarroako Gobernuaren baitan, honek garatutako hizkuntza plangintza ibilbide motzeko arloa dela esan dezakegu. Izan ere 2015-2019 legealdiaren amaieran onartu ziren departamentuetako lehen hizkuntza planak. Legealdi horretan 9 departamentu izan ziren eta 2019-2021 epealdirako planak onartu zituen departamentu bakoitzak. 2019-2023 legealdian, aldiz, 13 departamentu izan dira eta horrek hizkuntza planak berrikustea ekarri du. Departamentu bakoitzak 2020-2022 epealdirako bere hizkuntza plana onartu du Foru Agindu bidez, aurreko planak ordeztuz.

Hizkuntza plangintzak administrazio publikoaren egitura eta baliabideak ondo ezagutzea eskatzen du, horietan euskara zeharkakotasunez txertatzea baita zeregina. Zeharkakotasun horrek departamentuekin elkarlanean aritzea eskatu du. Izan ere, helburua da departamentuetako langileek beraiek, edo zuzenean edo itzulpen zerbitzuak erabilita (izan Euskarabideko itzulpen atala, izan kanpo kontratazioa), haien jardunean hizkuntza kudeaketa egokia eginez elebiko zerbitzua eskaintzeko urratsak ematea. Hori dela eta, Euskarabideko Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuaren zeregina izan da departamentuei laguntza teknikoa eskaintzea lan eremuak identifikatu, lehenetsi, antolatu eta horiek bideratzen laguntzeko, baina gauzapena bera departamentuek egitea. Horrek erritmo eta sakontasun maila desberdinetan lan egitea ekarri du, departamentu bakoitzaren errealitatetik abiatuz eta dituen baliabideen arabera. Lana bideratzeko, Departamentu bakoitzak bi figura definitu ditu lanketak departamentuetan hedatzeko: hizkuntza planaren arduraduna eta teknikaria. Euskarabideko Aholkularitza ataleko teknikariek haiekin zuzeneko harremanean lan egin dute. Lan egiteko modu honek lan prozedura eta harremanak eraikitzea eskatu du, lehenbiziko plangintzaz ari baikara. Eta zeregin horrek pisu espezifiko

nabarmena izan du hasiera honetan. Aurreikustekoa da aurrera begirako plangintzetan egindako bide honek emandako irakaspen eta metatutako esperientziari esker antolaketa lana erraztea.

Lehenbiziko plangintza hauetan zerbitzu hizkuntzan (hau da, herritarrekiko harremanetan erabiltzen den hizkuntza) urratsak ematea lehentasunezko definitu den neurrian, hizkuntzen erabilerari dagokionez bereziki herritarrei begirakoa nolakoa den ezagutzea funtsezkoa izan da, hortik lan ildo eta proposamen egingarriak bideratzeko. Aipatutakoa aintzat hartuz, honako arloak lehenetsi dira azterketarako: Foru Administrazioaren plantilla organikoa, langileen euskararen ezagutza, herritarrekin komunikatzeko bideak, Gobernuaren egoitzen sarea, itzulpen beharrak, administrazio elektronikoa edo arautegia.

Legealdien artean egon daitezkeen egiturazko aldaketak aurreikusiz eta departamentu bakoitzak bere hizkuntza plana onartu behar duela kontuan hartuz, hizkuntza plan hauek legealdi bakoitzaren epealdiarekin bat egitea erabaki da, plangintzaren helburuak eta Euskarabidearen koordinaziopean ezartzen diren adierazleak egonkorrak izango direlarik. Hortaz, 2023arekin batera hurrengo legealdirako planak landuko dira, ebaluazio txosten hau oinarri gisa hartuz.

Euskarabidearen Gobernu Kontseiluan aurkeztu den ebaluazio txosten honetan aurkezten ditugun datuak, beraz, 2019-2022 plangintzaldiko Nafarroako Gobernuko 13 departamentuen euskara planen implementazio eta betetze mailari buruzkoak dira, eta honako helburuak ditu:

- Departamentuetako Hizkuntza Planen implementazioaren betetze maila azaltzea.
- Departamentuetako Hizkuntza Planen ibilbidearen balantzea egitea.
- Hurrengo epealdirako gomendioak jasotzea.

LEGE ESPARRUA

LEGE MARKO OROKORRA

Departamentuetako Hizkuntza Planak martxan jartzerako orduan kontuan hartu da Europa, Espainia eta Nafarroa mailan euskara babestu eta sustatzeko politikak abiatzeko gomendioa egiten dutela, bereziki herritarren eskubideak bermatzeari begira.

Europar Batasuneko arau markoari dagokionez, 2 dira nagusi:

- **Europako Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartak** bere 22. artikuluan dio Batasunak aniztasun kultural, erlijioso eta linguistikoa errespetatzen duela.
- **Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak** ezartzen du hizkuntza horien babesak eta sustapenak laguntzen duela, Europako tradizio eta aberastasun kulturalaren mantentze eta garapenean. Espainiak 1992an gutuna berretsi zuen, Nafarroan euskarari erreferentzia eginez, eta jada 6 ebaluazioaldi egin ditu Europako Kontseiluak hizkuntza koofizialen egoera orokorraren gainean.

Bestalde, **Espainiako Konstituzioak** ezartzen du Atariko Tituluko 3. artikuluan, Gaztelania Estatu osoan izango dela ofiziala eta beste hizkuntzen ofizialtasuna Erkidego Autonomo bakoitzaren Estatutuetan arautuko dela. Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna kultura ondareztat hartzen da eta ondare horrek begirune eta babes bereziak izango ditu.

Azkenik, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko **13/1982 Lege Organikoak** 9. artikuluan ezartzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskarak ere izanen duela hizkuntza ofizial izaera Nafarroako eremu euskaldunetan, Foru lege baten bidez eremu horiek zehaztu eta euskararen erabilera ofiziala arautuko direlarik.

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA

Nafarroako Foru Erkidegoan euskararen erabilera **18/1986 Foru Legeak, Euskarari Buruzkoa**, arautzen du, eta lege honek hurrengo moldaketak izan ditu Nafarroako Parlamentuaren bidez:

- **2/2010 Foru Legea**, otsailaren 23koa. Eremu mistoa zabaldu zuen 3 udalerrri gehituz.
- **4/2015 Foru Legea**, otsailaren 24koa. Eremu ez-euskaldunean euskaraz ikasteko eskubideak zabaldu zituen.
- **9/2017 Foru Legea**, ekainaren 27koa. Euskararen Legearen izena aldatu zuen gaztelaniazko testuan (“euskera” erabiliz “vascuence” ordez), 45 udalerriren eremuak aldatu zituen, herritarren hizkuntza eskubideak zabalduz, eta toki entitateei euskara ordenantzak egiteko eskumena aitortzen die.

Euskarari buruzko Foru Legeak honako hau ezartzen du lehen artikuluan:

1. Foru Lege honen xedea euskararen erabilpen normala eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan.

2. Hauek dira Lege honen ezinbesteko helburuak:

- a) Euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta egingarri bihurtzeko tresnak zehaztea.
- b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.
- c) Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraikiz, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

Bestalde, 2. artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla, eta ondorioz, herritar orok duela hizkuntza horiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Ofizialtasunari dagokionez, euskara ofizialtzat arautzen da eremu euskaldunean. Horrek suposatzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio publikoekin harremana aukeratzen duten hizkuntza ofizialean egiteko, eta administrazioek hori bermatzeko. Eremu misto eta ez-euskaldunean herritarrek eskubidea dute administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko.

Euskararen Legearen garapen gisa onartu zen **103/2017 Foru Dekretua**, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, eta arau honetan agertzen da lehen aldiz hizkuntza plangintzaren beharra, honako terminoetan:

6. artikulua. *Hizkuntza plangintza.*

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek eta beraiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateek behar diren planak prestatuko dituzte, foru dekretu honetako 3. artikuluan aurreikusitako helburuak erdiets daitezzen; plan horiek kontuan hartuko dute, betiere, genero ikuspuntua. Plan horietan atal hauek bilduko dira, gutxienez:

a) Euskararen egoeraren diagnostikoa: euskaraz dakiten langileak, barneko eta kanpoko komunikazioen eta eskura dauden baliabideen azterketa, herritarrei zuzendutako inprimakien eta dokumentazioaren inbentarioa, errotulazioa eta seinaleztapena.

b) Lanpostuen komunikazio-beharrak identifikatzea.

c) Behar diren helburuak lortzeko neurri egokiak, eta neurri horien lehenespena; betiere, herritarrei arreta zuzena ematen dieten unitate organikoak eta lanpostuak lehenetsiko dira.

d) Prestakuntza beharren ebaluazioa.

e) Itzulpen-beharren ebaluazioa.

f) Jarduketan egutegia finkatzea, helburuak lortzeko aurreikusitako epearen barnean.

g) Planean aurreikusitako jarduketan balorazio ekonomikoa.

h) Ezarritako helburuen jarraipenerako bideak eta ebaluaziorako adierazleak.

Hizkuntza plangintza horretan Euskarabidearen koordinatzaile rola ere honela arautzen da:

5. artikulua. *Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren aholkularitza eta koordinazioa.*

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoari dagozkio:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artean koordinazio-organo moduan aritzea, haiei aholkua ematea eta haiekin elkarlanean

aritzea Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan eta plangintzan ezarritako ildo estrategikoak gauzatzeko.

Horretaz gain, 103/2017 Foru Dekretuak euskararen erabilera administrazio publikoetan eta eremuaren arabera arautzen du, funtsezko helburuetan laburbildu daitezkenak:

3. artikulua. *Funtsezko helburuak.*

1. Foru dekretu honen funtsezko helburuak honako hauek dira:

- a) Eremu euskaldunean, ahalbidetzea bi hizkuntza ofizialetako edozein erabil daitezen lan-hizkuntza moduan Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, bai eta herritarrei zerbitzua emateko ere.
- b) Eremu mistoan, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta beharrezkoak diren tresnak zehaztea ere ahalbidetzeko euskara eta gaztelania erabil daitezen herritarrei zerbitzua emateko; betiere, eremu horretako udalerrien errealitate soziolinguistikoarekin bat.
- c) Eremu ez-euskaldunean, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta hori lortzeko tresnak zehaztea ere, eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraletan, funtsezko helburua da euskararen erabilera ahalbidetzea herritarrei zerbitzua emateko.

Zerbitzu zentralen honako definizioa ezartzen da: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuetatik, herritar guztiendako arreta ematen dutenak, non kokatutarik dauden kontuan hartu gabe.

Zeharka hizkuntza politikan eragina izan duten arauak ere daude:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko [11/2019 Foru Legeak](#), IV. tituluan, Administrazioaren funtzionamendu elektronikoari buruzkoan, honako hau ezartzen du:

69. artikulua. *Nafarroako Gobernuaren web ataria.*

4. Nafarroako Gobernuaren web ataria gaztelaniaz eta euskaraz egonen da. Era berean, interes orokorrekoa dela jotzen bada, beste hizkuntza batzuetan ere emanen da informazioa.

- [5/2018 Foru Dekretuak](#), otsailaren 28koa, Nafarroako biziguneeen izenak erabiltzeko eta adierazpen grafikorako irizpideak ezartzen dituenak, Euskararen Legean Foru Komunitateko toponimoei buruz ezarritakoa garatzen du.
- Urtarrilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak, Nafarroako Gobernuaren ikur ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 27ko [4/2016 Foru Dekretua](#) aldatzen duenak, hizkuntzen ordena aldatu zuen Gobernuaren sinboloan.

EUSKARAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

2017 urtean Nafarroako Gobernuak lehen aldiz euskararen garapenerako plan estrategikoa onartu zuen Gobernu Akordio bidez, eta honen 3. Ardatzean, Zerbitzu Publikoak izenekoa, Gobernuko departamentuen hizkuntza plangintzaren beharra ezarri zen. Lehen plan estrategiko honi jarraipena emateko konpromisoa agertzen da 2019-2023 urteetako Nafarroako Gobernuaren Programa Akordioan.

2. Euskararen egoera Nafarroan

DATU DEMOGRAFIKO ETA SOZIOLINGUISTIKOAK¹

DATU DEMOGRAFIKOAK

NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera, Nafarroak 2020an 661.197 bizilagun zituen. Hurrengo taulan hizkuntza eremu bakoitzean egon den biztanleriaren bilakaera ikus daiteke (2017 urtean Euskararen Legearen aldaketaren ondorioz hizkuntza eremuak birdefinitu ziren, eta horrek eragina izan du aurrerantzean adieraziko diren kopuruen bilakaeran):

Nafarroako biztanleriaren bilakaera eremuka 2005-2020

Eremua	2005		2010		2015		2020	
	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%
Nafarroa	593.472	100	636.924	100	640.476	100	661.197	100
Euskalduna	56.828	9,5	59.257	9,3	58.534	9,1	58.861	8,9
Mistoa	321.908	54,24	347.148	54,5	365.536	57	420.542	63,6
Ez-euskalduna	214,736	36,18	230.519	36,1	216.406	33,7	181.794	27,5


Iturria: NASTAT-Nafarroako Estatistika Erakundea.

EUSKARAREN EZAGUTZA DATUAK

Nafarroako euskararen ezagutza orokorra

Nafarroan 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 14,1 euskalduna da (75.810 lagun), hau da, euskaraz ongi edo nahiko ongi egiteko gai da. Gainera, euskaldun hartzaileak, euskaraz zerbait jakin bai, baina ongi mintzatzen ez direnak, biztanleriaren % 8 dira (42.994 lagun) eta erdaldunak, euskaraz ez dakitenak, % 77,9 (418.425 lagun).

Euskararen ezagutza. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

¹ Atal honetan 2022ko abenduaren 31an eskura zeuden datu soziolinguistikoak erabili dira.


1991tik Nafarroako gizartea nabarmen aldatu da. Alde batetik, biztanleria handitu da (519.277 biztanle ziren 1991n eta 647.554 2018an) eta horretan zeresana izan du XXI. mende hasieratik hona atzerrian sortutako biztanleak nabarmen berretu izana (% 2,7 ziren 2000. urtean eta % 15,1 2019ko hasieran).

Bestetik, Nafarroako gizartea zahartu da, bizi itzaropena gero eta handiagoa baita eta jaiotze tasa Europakoa baino txikiagoa (9,2 jaiotza 1.000 biztanleko, Europakoa [EB-27] 10,1 izanda).

Testuinguru horretan, biztanleria euskaldunaren bilakaerari dagokionez, 1991tik 2018 bitarte, euskaldunek Nafarroako gizartean duten pisu erlatiboa etengabe handitu da, 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren % 9,5 ziren euskaldun 1991n eta % 14,1 dira 2018an. Zenbaki absolutuetan, 40.167 ziren 1991n eta 75.810 dira 2018an. Euskaldun hartzaileen ehunekoa ere handitu da urte tarte horretan: 1991. urtean Nafarroako biztanleriaren % 4,6 ziren eta 2018an, % 8.

Euskararen ezagutza adinaren arabera

Ikus dezakegunez, adin taldea zenbat eta gazteagoa izan, euskaldunen portzentajea orduan eta handiagoa da.



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernuak, 2020).


Datu horiek 1990eko hamarkadaren hasieratik 2018ra izan duten bilakaerak erakusten du euskaldunen igoerarik handiena gazteenen artean (16-24 urte bitartekoen artean) gertatu dela: ia 15 puntuko igoera izan du, % 10etik % 24,9ra. Hala bada, gaur egun lau gaztetatik

bat euskalduna da. Hogeita hamabost urtetik gorako herritarren artean euskaldunen pisu erlatiboak modu esanguratsuan egiten du behera.

Euskararen ezagutza hizkuntza eremuaren arabera

Eremu euskaldunean 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 60,8 da euskalduna, eremu mistoan % 12,4 eta eremu ez euskaldunean % 2,6.

Euskararen ezagutza hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa 2018




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020)

1991tik 2018 bitarteko bilakaerari dagokionez, euskararen ezagutzak eremu mistoan izan du hazkunderik handiena: 7 puntu baino gehiagokoa (% 5,2 > % 12,4). Eremu ez euskaldunean, igoera bi puntukoa izan da (% 0,6 > % 2,6). Eremu euskaldunean, aldiz, euskaldunen ehunekoak bere horretan dirau, % 60 inguruan egonkor dago.

Ehuneko horiek ordezkutzen dituzten kopuru absolutuei so eginez gero, 16 urteko eta urte gehiagoko 75.810 nafar euskaldun gehienak eremu euskaldunetik kanpo bizi direla ikusten da: 29.459 eremu euskaldunean (nafar euskaldunen % 38,9), 42.551 eremu mistoan (nafar euskaldunen % 56,1) eta 3.800 eremu ez euskaldunean (nafar euskaldunen % 5).

Euskaldun hartzaileen kopuru absolutuei dagokienez, 16 urteko edo gehiagoko 42.994 nafar euskaldun hartzaileetatik gehien-gehienak eremu mistoan bizi dira: eremu euskaldunean

5.187 (nabar euskaldun hartzaileen % 12), eremu mistoan 32.217 (% 75) eta eremu ez euskaldunean 5.590 (% 13).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).


EUSKARAREN ERABILERA DATUAK

Euskararen erabilerari buruzko datu orokorra

Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria aintzat hartuta, %11,8k erabiltzen du euskara neurri batean edo bestean:

- % 6k erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara (gaztelania) beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- % 5,8k euskara erabiltzen ohi du, baina erdara baino gutxiago.

Euskararen erabilera. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Euskararen erabilerraren bilakaerari erreparaturaz, 1991tik 2018ra hazi egin da. 2016 (%6,6 trinkoa eta %5,6 ez trinkoa) eta 2018koak (%6 trinkoa eta %5,8 ez trinkoa) dira ehunekorik altuenak.

Euskararen erabilera adinaren arabera

Hizkuntzaren erabilera adinaren arabera aztertuz, gazteenak (16-24 urte bitartekoak) dira euskara gehien erabiltzen dutenak, % 13,9k erabiltzen baitu euskara (% 5,7k erabilera trinkoa egiten du, hau da, erdara beste edo gehiago; eta % 8,2k ohikotasunez erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago). 50-64 adin tartekoan artean dago euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekorik altuena, % 6,5.

Euskararen erabilera hizkuntza eremuaren arabera

Euskararen erabilera nabarmen aldatzen da hizkuntza eremuaren arabera. Eremu euskaldunean 16 urteko edo urte gehiagoko herritarren % 48k euskaraz erdaraz beste edo gehiago egiten du eta % 11,4k euskaraz erdaraz baino gutxiago. Eremu mistoan balio horiek % 2,4 eta % 6,9 dira hurrenez hurren. Eremu ez euskaldunean euskararen erabilera trinkoaren ehunekoak ez da % 1era iristen eta euskararen erabilera ez trinkoa ehuneko bataren inguruan, % 1,3.



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernuak, 2020).

Euskararen erabilera administrazioan gune soziolinguistikoaren² arabera


Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuetan euskaldunek euskaraz egiten ote duten jakin nahian, udaleko zerbitzuetako eta osasun-etxeetako erabilerrari erreparatuko diegu. Erabilera

² 1go gune soziolinguistikoa: %20ko ezagutzatik beherakoa; 2.gune soziolinguistikoa %20-%49ko ezagutza; 3. gune soziolinguistikoa %50-%79ko ezagutza eta 4. gune soziolinguistikoa %80tik gorako ezagutza

datu horiek Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko 2018ko Inkestan bildu ziren. Datuok desberdintasun esanguratsuak erakusten dituzte gune soziolinguistikoaren arabera.

Biztanleria euskaldunak **udaleko zerbitzuetan** egiten duen erabilerari dagokionez, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 92,3k beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago egiten du; 3. gune soziolinguistikoan % 82,7k, 2. gune soziolinguistikoan % 62,8k eta 1. gune soziolinguistikoan % 21,9k.


Euskararen erabilera udaleko zerbitzuetan, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Euskaldunek udaleko zerbitzuetan egiten duten hizkuntza erabilera eta osasun etxeetan egiten dutena alderatzean, **osasun etxeetan** euskaraz gutxiagotan egiten dutela ikusten da. Izan ere, osasun etxeetan lanpostu elebidunen ehunekoa apalagoa izaten da. Osasun etxean euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 85,1ek egiten du, 3. gune soziolinguistikoan % 68,1ek, 2. gune soziolinguistikoan % 36,3k eta 1. gune soziolinguistikoan % 10,2k.

Euskararen erabilera osasun-etxean, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA DATUAK

Nafarroako 16 urteko edo gehiagoko biztanleen % 33,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 27,6 ez alde ez aurka eta % 39,1 aurka dago.


Jarrera datuen bilakaera

Biztanleria jakin baten hizkuntzaren ezagutza eta erabilera datuak bilakaera moteleko balioak diren bitartean, jarrerei dagozkien datuak askoz ere errazago aldatzen dira. Hori gertatzen da Nafarroako kasuan, 16 urte edo urte gehiagoko biztanleriak euskararen sustapenaren inguruan dituen jarrerei dagokienez. 1991tik 2016rako datuen bilakaera aztertuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak ia 13 puntuko igoera izan du (% 21,6 > % 33,3). Epe luzeko bilakaera positiboa izan bada ere, 2011tik 2016ra joera aldaketa bat jazo da eta euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak behera egin du (% 37,7 > % 33,3).

Jarrera hizkuntza eremuen arabera

Euskara sustatzeari buruzko jarreren bilakaera aztertuz gero, alde nabarmenak daude hizkuntza eremu batetik bestera. 2011tik 2016ra, eremu euskaldunean eta mistoan ez dira asko aldatu ehunekoak. Eremu ez-euskaldunean aldiz, nabarmen egin du gora euskara sustatzearen kontrako jarrerak.

Euskara sustatzearen gaineko jarreraren bilakaera, hizkuntza eremuaren arabera, 2011-2016. Nafarroa (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2019).

3. Antolamendua eta metodologia

Atal honetan, 2019-2022 urteen artean Nafarroako Gobernuko Departamentuetako hizkuntza planak aurrera eramateko antolamendua eta plan horien ebaluazioa egiteko metodologia aurkezten da.

Egin diren planek aukera eman dute ekintzak planaren indarraldian gauzatzeko. Izan ere, funtsezko helburua herritarrei zerbitzuak bi hizkuntzetan emateko aukerari bide ematea da, epe ertain eta luzerako plangintza prozesu baten baitan, halako moduz non helburu hori progresiboki beteko den, ondoz ondoko planen bidez. Horregatik, lehenetsi egin da gauzagarriak diren ekintza zehatzak egitea, errealitate soziolinguistikoari, legezko esparruari eta herritar euskaldunak zuzenago artatzen dituzten unitateen zehaztapenari erantzuten diotenak.

Departamentuz departamentu euskara planak inplementatzen laguntzeko, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak, lizitazio irekiaren bidez kontratatutako Emun eta Elhuyar aholkularitzen laguntza jaso du.

DEPARTAMENTUETAKO HIZKUNTZA PLANAK

Aurretik aipatu bezala, [103/2017 Foru Dekretuak](#), azaroaren 15ekoak, euskararen erabilera arautzen du Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan. 6. artikulua, hizkuntza plangintzari buruzkoak, zehazten du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentu bakoitzak bere hizkuntza plana prestatuko duela, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren koordinazioarekin.

2019an hasitako legegintzaldian Nafarroako Gobernuko departamentuen berregituraketak hauen hizkuntza plangintzaren berrikusketa eskatu zuen definizio, egitura, eskumen eremu, funtzio eta departamentuetako helburu berrietara egokitzeko, aurreko planen oinarritzko egitura mantenduz.

Nafarroako Gobernuak 13 departamentu ditu eta horietan guztietan onartu dira Hizkuntza Planak Foru Agindu bidez:

- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Herritarrekiko Harremanetako Departamentua](#), ekainaren 4ko 42E/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua](#), ekainaren 18ko 94/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Kultura eta Kirol Departamentua](#), ekainaren 19ko 29/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua](#), ekainaren 22ko 15/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua](#), ekainaren 23ko 14/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua](#), ekainaren 30eko 23/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Lurralde Kohesiorako Departamentua](#), uztailaren 1eko 34/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Osasun Departamentua](#), uztailaren 8ko 32/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua](#), irailaren 4ko 96/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) Ekonomia eta Ogasun Departamentua](#), irailaren 4ko 100/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua](#), irailaren 14ko 19E/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\) - Hezkuntza Departamentua](#), irailaren 16ko 78/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.
- [Hizkuntza Plana \(2020-2022\)- Eskubide Sozialetako Departamentua](#), ekainaren 15eko 204/2020 Foru Aginduaren bidez onartua.

HELBURUAK

Departamentu guztietako planek jarraian datozen helburu hauek dituzte, nork bere errealitateak abiatuz garatu dituenak.

1. Beharrezko hizkuntza nahitaezkotasuna ezartzea lehentasunezko unitate organikoetan.
2. Euskarazko prestakuntza eskaintzea Departamentuko lehentasunezko unitate organikoetara esleituriko langileei.

3. Beharrezko neurriak hartzea euskaraz artatuak izan nahi duten pertsonak hala izan daitezten.
4. Herritarrei ele bitan informazio idatzia eskaintzea (digitala eta paperekoa).
5. Errotulazioa eta informazio elementuak ele bitan, herritarrak artatzeko gune fisikoetan (bulegoak, harreraguneak...): hizkuntza paisaia.
6. Zerbitzu publikoak esleitzeko orduan, hizkuntza irizpideak ezartzea.

LANEN ANTOLAMENDUA

Planen antolamendu eta jarraipen egiturak honako figura hauek jaso ditu:

- Hizkuntza planaren arduradunak; horiek izanen dira planaren gauzatzea bultzatu, gidatu eta koordinatuko dutenak bere departamentuetako egitura organikoetan.
- Departamentuen barnean hizkuntza plana gauzatzeko izendatutako teknikariak.
- Euskarabideko Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuko teknikariak eta aholkulariak.

Departamentuek pertsona bat edo gehiago izendatu dituzte (departamentuaren egituraren tamainaren edo konplexutasunaren arabera) zerbitzuko zuzendaritzen edo horien baliokideen artean. Pertsona horiek departamentuaren planaren arduradun eta ordezkari gisa aritu dira, erabakiak hartzeko eskumena izan dutelarik. 22 pertsona aritu dira plangintzaldi honetan funtzio hau betetzen.

Izendatutako zerbitzuen barnean, plana gauzatzeko behar diren teknikariak izendatu dira. Profil ezberdinetako 29 langileri egokitu zaie teknikari lanetan aritzea, eta horietatik, soilik Hezkuntza Departamentuak du Euskara Teknikari lanpostu bat.

Departamentuetan garatu beharreko planaren arduradunen eginkizunak hauek izan dira:

- Departamentuko hizkuntza planean jasotako ekintzak bultzatu, gidatu eta koordinatzea, bere zerbitzuko nahiz Euskarabideko teknikariek elkarlanean.
- Departamentuan hizkuntza gaietan erreferentziako solaskide izatea.
- Ekimen edo behar berriak identifikatzea.

- Planaren jarraipena eta ebaluazioa.
- Departamentuari hizkuntza planaren nahiz Euskararen Plan Estrategikoaren garapenaren berri ematea.
- Departamentuko teknikariek plana aurrera eraman dute Euskarabideko teknikariek harreman estuan, eta horrek prestakuntza beharrak ere sortu ditu. Aholkularitzaren bidez soziolinguistika eta hizkuntzen kudeaketari buruzko prestakuntza saio ezberdinak egin dira, eta baita departamentuen arteko esperientzien trukea ere.

Bere aldetik, Euskarabideko Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuko Aholkularitza Ataleko teknikariek izan dute hizkuntza plana bultzatu eta koordinatzeko ardura. Teknikari hauen eginkizunak honakoak izan dira:

- Hizkuntza planean bildutako ekintzak departamentuetan ezartzen laguntzea.
- Planaren arduradunei eta departamentuko titularrei laguntza eta aholkularitza ematea hizkuntza politikarekin zerikusia duten gai guztietan.
- Beste departamentu batzuetako arduradunekiko koordinazioa ezartzea.
- Departamentuko plantillari eta komunikazioei buruzko diagnostikoak egitea.
- Planaren arduradunei behar duten prestakuntza eskaintzea.

MIKROPLANAK EREMU EUSKALDUNEKO EGOITZETAN

Departamentuetako hizkuntza planak oinarri hartuta, unitate zehatzetan planaren aplikazioa egin da pilotaje moduan, departamentuaren ikuspegi orokorrarekiko esperientzia osagarria izan delarik. Mikroplanek aukera ematen dute lan esparrua mugatzeko eta bertan ekintza zehatzak egiteko. Horretarako, Euskarabideak eremu euskalduneko hainbat egoitza identifikatu ditu eta bertako arduradunen onespina jaso du.

Hauek izan dira mikroplanak landu dituzten egoitzak:

- Altsasuko Suhiltzaile etxea, Foruzain etxea, Liburutegia eta Nafar Lansareko bulegoa.
- Irurtzungo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko bulegoa.
- Doneztebeko Osasun etxea.
- Lesakako Osasun etxea.

Mikroplan hauen bidez hizkuntza planen helburuak modu oso zehatzean landu dira, tokian tokiko behar eta ezaugarriei erantzunez, eta bertan ikasitakoak inguruko egoitzetan aplikagarriak diren irizpideak ezartzen lagundu du.

EBALUAZIORAKO METODOLOGIA

Ebaluazio txosten honetako datu jasotzeko Euskarabideak lau bide nagusi erabili ditu:


- **Eduki digitalen azterketa eta behaketa:** Administrazio elektronikoaren edukiak uneoro eskuragarri daude hauen azterketa egiteko. Hizkuntzaren ikuspegitik, ele bitan argitaratuak dauden edukiak aztertzeaz gain, edukien horien formatuak, bi hizkuntzen arteko koherentzia eta eguneratzea, hizkuntza aukeratzeko sistema edo erabilitako softwarearen eguneratzea bezalako faktoreak ere hartu dira kontuan. Bestalde, Nafarroako Gobernuaren produkzio digitalaren eta webgune berrien sorreran behaketa lana egin da, aukera egon den kasuetan aurrelanak prestatzen lagunduz.
- **Departamentuetako arduradun eta teknikarien bidez informazioa jasotzea:** Departamentuek hizkuntzen kudeaketa autonomia lortzeko bidean, lehen pausua haien bidez orain arte jasotzen ez zen informazioa eskatzea izan da, informazio hori biltzeko bideak eraikiz eta horren garrantziaz jabetzen lagunduz. Edonola ere, departamentuen baitan dauden dinamika propioak ezagutzeko ezinbestekoa izan da bertako langileen elkarlan estua, bai arduradun eta teknikarien bidez zuzenean, edo haiei esker egindako kontaktuak erabilia.
- **Unitateetara bisitak:** Gobernuak 743 egoitza ditu (ikastetxeak eta osasun etxeak barne) Nafarroa osoan sakabanaturik. Lehentasunak eta azterketarako irizpideak aurretik ezarriz, zenbait egoitzetara bisitak egin behar izan dira tokian tokiko errealitatea ezagutzeko eta hizkuntza behar espezifikoak detektatu eta lantzeko. Bisiten aurretik unitateen arduradunekin adostu da prozedura.
- **Galdetegi telematikoak:** Egungo plataformek eskaintzen dituzten erraztasunak baliatuz, langile talde kopuru esanguratsu bati buruzko informazioa jasotzeko online bidezko galdetegiak egin dira. Galdera motz eta esanguratsuak egitea eta anonimotasuna bermatzea (departamentua identifikatuz) izan dira irizpide orokorrak, eta bai datuen analisirako baita planaren garapenerako erabilgarriak izan diren galdetegiak egin dira.

4. Datuen analisia

Jarraian Hizkuntza Planen helburuei dagozkien datuak aurkeztuko dira. Datuak helburuka eta departamentuka aurkeztuko dira, hasieran egoera orokorraren argazki bat eskainiz.

1. LANGILEEN EUSKARA GAITASUNA

Argitaratu den azken plantilla organikoaren arabera, Foru Administrazioak 24.308 lanpostu ditu. Plantilla organikoa 5 eranskinetan banatzen da, hurrengo grafikoan ikusten den bezala:



Atal honi dagokionez, aipatzekoa da 103/2017 Foru Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen duela unibertsitatekoak ez diren irakasleen funtzio publikoan, hautaketa, lanpostuak betetzeko prozesua, lanbide sustapena, barne-igoera, kidego eta eskalen berrantolaketa eta irakasleen birziklatzea eta hobekuntza gai horietarako berriazkoa den araudian xedatutakoaren arabera izanen direla, hortaz irakasle lanpostuak ez dira analisi honetan kontuan hartuko.

EUSKARA GAITASUNA

Gaur gaurkoz Nafarroako Gobernuak ez dauka langileen euskararen ezagutza maila zein den jakiteko sistema antolaturik. Ondorioz, ez dago 24.308 langile horiek duten euskara gaitasunaren datu zehatzik. Gaitasun datuetara gerturatzeko honako bi datu hauek daude mahai gainean:

- Plantilla organikoan hizkuntza eskakizuna ezarria duen lanpostuen kopurua.
- Euskarabideak langile publikoentzat eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartu duen langileen kopurua.

Bi datu horiek jarraian aurkeztuko dira. Aipatzekoa da, halere, bi datu horiek gerturapen bat baino ez dutela eskaintzen, bi arrazoi nagusirengatik:

- Lanpostuek hizkuntza eskakizuna ezarrita izateak beti ez du bermatzen lanpostua betetzen duen langileak gaitasun maila hori duenik.
- Nafarroako Gobernuak plantillan badira lehenago ere euskaldundu diren langileak edo bestelako euskaltegi edo eskoletan euskalduntzen ari direnak.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

Nafarroako **18/1986 Foru Legea**, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoak, bere 3. artikuluan esaten du botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituztela hizkuntza dela-eta herritarrak diskriminaturik izan ez daitezen, zehazki:

Eremu euskaldunean:

“Herritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko, progresiboki eskubide honen erabilera bermatzeko.” (10.1 artikulua).

Eremu mistoan:

“Herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoetara zuzentzeko.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatutako administrazioek honako hau egin dezakete:

a) Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zehaztea zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea.” (17. Artikulua).

Beste alde batetik, **103/2017 Foru Dekretuak**, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duenak, 25. artikuluan honakoa dio:

“Ele biko lanpostuen kopurua eta ezaugarriak.

1. Plantilla organikoetan ezarritako ele biko lanpostuak kopuruz nahikoak izanen dira Euskarari buruzko Foru Legean eta foru dekretu honetan ezarritako helburuak bermatzeko.”

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak 2021eko abenduaren 31ko datuekin egindako azken plantilla organikoaren datuak aztertu dira. Foru Administrazioaren plantillako hizkuntza eskakizunen analisia egiteko orduan, 24.308 langile publikoen artean, badira kontuan hartzeko oharrak:

- Hizkuntza eskakizunak modu egonkorrean plantillako oinarrizko plazei ezartzen ahal zaie, hortaz hauek hartuko dira kontuan. Oinarrizko plaza dira goi kargudun, burutzak edo estrukturalak ez diren lanpostuak (Foru Administrazioako lanpostu gehienak oinarrizkoak dira).
- Goi kargudunei, izendapen bidez lortzen baitute lanpostua, ez zaie printzipioz inolako eskakizunik esleitzen. Plaza estrukturalak, berriz, aldi motz baterako lanpostuak dira eta ez dira plantilla organikoan adierazten.
- Burutza ezarria duten plazak (atalburua edo bulegoburua izan daitezke) ere kanpoan utzi dira, hizkuntza eskakizuna esleitzeko prozedura berezia dutelako, aldi baterako deialdien bidez (edo, horren ezean, izendapenaren bidez).
- Oinarrizko plazetatik 7.186 irakasleak dira. Hauek berezko ezaugarriak dituzte hizkuntzari dagokionez, irakasten duten hizkuntza ereduak baldintzatzen baitie hizkuntza eskakizuna izatea ala ez eta, esan bezala, 103/2017 Foru Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera plangintza honetatik at leudeke.

- Justiziako Administrazioari langileak ere, oro har, alde batera utzi dira, Nafarroako Gobernuak ez duelako eskumenik hizkuntza eskakizunak ezartzeko orduan, justizia arloan eskumena duen ministerioak baizik. Edonola ere, Foru Administrazioarenak diren lanpostuak ere badaude justizia arloan lanean laguntzaile gisa, eta hauek bai hartu dira kontuan.
- Aldi baterako eta proiektu zehatzetarako egiten diren kontratazioak (plaza estruktural izendapena dutenak), ez dira kontuan hartu, ez direlako plantilla organikoan argitaratzen.

Adierazitako guztia aintzat hartuz, analisi honetan aztertutako oinarrizko plazak 14.702 dira, eta horietatik gaur egun 481 plaza elebidunak dira, hau da, %3,27. Oinarrizko plaza elebidun horiek horrela daude banatuta:

Foru Administrazioari oinarrizko plazaren hizkuntza eskakizunak hizkuntza eremura

Eremu euskalduna			Eremu mistoa			Eremu ez euskalduna		
Plazak	Hizkuntza Eskakizunak	Ehunekoak	Plazak	Hizkuntza Eskakizunak	Ehunekoak	Plazak	Hizkuntza Eskakizunak	Ehunekoak
548	149	% 27,19	12.361	329	% 2,66	1.793	3	% 0,17

Iturria: Funtzio Publikoa.

Hizkuntza eskakizuna duten plaza kopuruari erreparaturik, kopuru handiena eremu mistoan badago ere, bertako oinarrizko plaza kopuruarekin erlazioan jarrita batez bestekoa %3tik beherakoa dela ikus dezakegu. Eremu ez euskalduneko plaza kopurua oso baxua da eta proportzioan ez da esanguratsua. Aldiz, eremu euskalduneko lanpostuen laurden batetik gora hizkuntza eskakizuna ezarrita daukara ikus dezakegu.

Departamentuek 2019-2022 aldirako onartutako Hizkuntza Planetan, herritarrei begira betetzen dituzten eginkizunak eta ematen dituzten zerbitzuak aztertu dituzte eta lehentasunezko unitateetan euskara jakitea beharrezkoa duten lanpostuak identifikatu dituzte, herritarrei arreta elebidun egokia eman ahal izateko.

103/2017 Foru Dekretuak ezartzen du ele biko lanpostutzat hartuko direla lehentasunez haien eginkizunen artean hauetako batzuk dituztenak:

- a) Herritarrei arreta orokor zuzena ematea zentral telefonikoetan, erregistro bulegoetan edo harreretan; bereziki, hiri segurtasuneko zerbitzuetan eta larrialdi zerbitzuetan, eta babes zibileko eta larrialdietako zerbitzuetan.
- b) Herritarrei zerbitzu edo prozedura administratiboei buruzko berriazko informazioa ematea, ahoz zein idatziz.
- c) Herritarrei zuzendutako komunikazioak sortzea edo dokumentazioa oro har euskaraz kudeatzea.
- d) Eremu euskalduneko herritarrei arreta egitea.
- e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraleri dagokienez, ele biko zirkuitu batean sartuta egotea.

Txosten hau aurkezten den unean, departamentuek egindako euskarazko hizkuntza eskakizunak esleitzeko proposamenak Nafarroako Gobernuaren Negoziazio Mahai Orokorrean negoziatzeko zain dadue, ondoren Foru Administrazioaren plantilla organikoa moldatuko duen Foru Dekretua onartzeko.

Argitu beharra dago departamentuek hasiera batean beharrezko lanpostu mota, kopurua eta kokapenaren proposamena egiten dutela, eta Euskarabideak lanpostu bakoitzari dagokion euskara maila proposatzen duela Gobernu mailan koherentzia mantentzearen. Behin negoziazioa egin ondoren, lanpostu kopuru hori plantilla organikoko plaza zehatzetan islatzen da.


Aipatutako guztia kontuan hartuta, ondoren agertzen diren oinarritzko lanpostuei euskara ezagutzeko eskakizuna esleitzea proposatu dute Nafarroako Gobernuko departamentuek. Esan bezala, lanpostu horiek plantilla organikoko plazetan zehaztuko dira, horretarako ezarritako prozeduraren arabera.

Departamentuetako hizkuntza eskakizunen egoera eta proposamenak

Departamentuak	Oinarrizko plazak orain			Proposatutako oinarrizko plaza elebidunak				Oraingo plazak + proposatutakoak	
	Oinarrizko plaza guztiak	Plaza elebidunak	Ehunekoa	Eremu eusk.	Eremu mistoa	Eremu ez eusk.	Guztira	Plaza elebidunak	Ehunekoa
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	2331	57	% 2,45	11	28	0	39	96	% 4,12
Herritarrekiko Harremanak	74	58	% 78,38	0	0	0	0	58	% 78,38
Hezkuntza (irakaslerik gabe)	847	143	% 16,88	5	26	0	31	174	% 20,54
Osasuna	8953	174	% 1,94	44	8	0	52	226	% 2,52
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	123	0	% 0,00	0	18	0	18	18	% 14,63
Kultura eta Kirola	284	10	% 3,52	2	13	0	15	25	% 8,80
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	56	0	% 0,00	0	9	0	9	9	% 16,07
Landa Garapena eta Ingurumena	439	10	% 2,28	5	21	0	26	36	% 8,20
Ekonomia eta Ogasuna	427	12	% 2,81	0	0	0	0	12	% 2,81
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	99	0	% 0,00	0	4	0	4	4	% 4,04
Eskubide Sozialak	820	17	% 2,07	1	8	0	9	26	% 3,17
Lurralde Kohesioa	171	0	% 0,00	0	3	0	3	3	% 1,75
Migrazio Politikak eta Justizia	78	0	% 0,00	0	13	0	13	13	% 16,67
Guztira	14702	481	% 3,27	68	151	0	219	700	% 4,7

Iturria: Funtzio Publikoa.

Hurrengo grafikoak aurreko taularen laburpen bisuala erakusten digu, datuak departamentuen langile kopurua kontuan harturik hiru multzo berdintsutan banatuz, hau da, Osasuna eta Hezkuntza (irakaslerik gabe) alde batetik, eta gainontzeko 11 departamentuak bestetik:



Iturria: Funtzio Publikoa.

Plangintzaldi honetan, Ekonomia eta Ogasuna, eta Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuek ez dute oinarrizko plaza berririk proposatu, izan ere aurreko Hizkuntza Planean egin zutelako (2019-2021). Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren proposamena 2019ko abuztuaren 1an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta 7 plazei esleitu zitzaizkien eskakizuna plantilla organikoa moldatzeko Foru Dekretu bidez. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren proposamena 2019ko ekainaren 18 argitaratu zen NAO-n, eta 5 plazei esleitu zitzaizkien eskakizuna.

Orain arte 481 oinarrizko plazak zeukan hizkuntza eskakizuna ezarrita. Proposamen berriak beste 219ri ezartzea planteatzen du. Ordea, hizkuntza eskakizuna ezarrita duten plazen kopurua oinarrizko plaza kopuru orokorrarekin harremanetan jarrita, langileen % 3,27k ezarrita izatetik, langileen % 4,76 ezarrita izatera pasatzen da. Alegia, oraindik ere, langileen %95,24ak hizkuntza eskakizuna ezarri gabe dauka.

Hizkuntza eskakizuna ezartzea proposatu diren lanpostuak hizkuntza eremuaren arabera aztertuz gero, horra banaketa:

Departamentuen proposamenak hizkuntza eremuka


	Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez euskalduna	
	Hizkuntza Eskakizunak	Plantillaren ehunekoa	Hizkuntza Eskakizunak	Plantillaren ehunekoa	Hizkuntza Eskakizunak	Plantillaren ehunekoa
Egungo egoera	149	% 27,19	329	%2,66	3	%0,17
Proposamena	68	% 17	151	% 1,25	0	% 0
Guztira	217	% 39,6	480	% 3,88	3	% 0,17

Iturria: Euskarabidea.

Proposamen hauekin ere aurreko joera errepikatzen dela esan daiteke, hau da, plaza kopuru handiena eremu mistorako proposatu bada ere, eremu bakoitzeko oinarrizko lanpostuekin harremanetan jarrita, proportzio handiagoan ezartzen dira eremu euskaldunean, eremu mistoan baino. Eta eremu ez euskaldunean ez da hizkuntza eskakizunik ezartzeko proposamenik egin.

Departamentuetako datuei erreparatuz, proposamenetan jasotakoa aurrera eramanez gero, ez legoke hizkuntza eskakizunik ez lukeen Departamenturik. Hurrengo grafikoan ikusi daitekeen bezala, bost ziren hizkuntza eskakizunik gabeko departamentuak, eta guztiek proposatu dute plazen ehuneko batean hizkuntza eskakizunak ezartzea: Migrazio Politikak eta Justizia (%16,67), Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoak (%16,07), Garapen Ekonomiko eta Enpresariala (%14,63), Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitala (%4,04), eta Lurralde Kohesioa (%1,75). Bestalde, lanpostu elebidunen ehuneko altuena Herritarrekiko Harremanetarako departamentuak du (%78,38), Euskarabidea erakunde autonomoa bertan kokatzen baita.

Hizkuntza eskakizunik ez duten departamentuen proposamenak



Iturria: Euskarabidea.

Ondorengo taulan laburtzen da helburu honetarako Departamentuen Hizkuntza Planetan ezarri zen lanen hurrenkera, zer lan egin den orain arte, eta zer falta den (kolorez nabarmenduta daude egindako lanak). Esan bezala, langileen ordezkariekin negoziatzeko esperoan daude departamentuen proposamenak, Funtzio Publikoko Negoziazio Mahaiaren bidez.

Aipatzekoa da plazak zehazteko prozedura (beheko taularen bosgarren pausoa) hurrengo arauaren bidez ezarriko dela: [195/2022 Foru Agindua, uztailaren 29koa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana.](#)

Plazak zehazteko prozedura

JARDUKETA ILDOAK	ARDURADUNA
Hizkuntza nahitaezkotasunarekiko lehentasunezko unitateen identifikazioa	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua (EAPGZ)
Plantilla Organikoan sartzeko plaza elebidun kopurua zehazteko proposamen-txostena egitea	Departamentua eta EAPGZ
Proposamena gainbegiratu eta beharrezko ekarpenak egin eta gero, Funtzio Publikoari txostenaren bidalketa egitea sindikatuekin negoziatzeko	Departamentua
Proposamenaren negoziazioa Funtzio Publikoko Negoziatio Mahaian (103/2017 FDko 7. xedapen gehigarria)	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia (FPZG)
Sindikatuekin negoziatu ondoren, ezarritako prozeduraren arabera hizkuntza eskakizuna ezarriko den plaza elebidunen zehaztapena	Departamentua, EAPGZ eta FPZG
Hizkuntza eskakizuna ezartzea erabaki den plazen inguruko txosten teknikoak idaztea	EAPGZ
Txosten teknikoen azterketaren ondoren, Plantilla Organikoan ezarriko diren plaza elebidunen behin betiko onarpena	Departamentua
Plazen proposamena Funtzio Publikoari bidaltzea	Departamentua
Plantilla Organikoaren moldaketarako Foru Dekretuaren espedientearen izapidea egitea	FPZG

Iturria: Departamentuetako Hizkuntza Planak.

2. PRESTAKUNTZA

Lege markoa

195/1993 Foru Dekretuak, ekainaren 21ekoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko langileen euskara-ikastaroak egiteko ordu eta diru konpentsazioak eguneratzen ditu. Foru Dekretu honek Nafarroako Foru Administrazioko langileek eskatu beharreko baimenak arautzen ditu eta honetaz gain Euskara irakasteko ikastaroen antolaketa zehazten du.

2019-2022 Hizkuntza Planetako 2. helburuaren xede nagusia, jarraian azaldutakoa da: Departamentuak hizkuntza derrigortasuna ezartzen duenean egokitzen jotzen dituen plazetan, Euskarabideko Euskararen Egiatzen eta Prestakuntzaren Atalari jakinaraziko dio zein diren euskarazko irakaskuntza premiak eta zein gaikuntza behar den herritarrei zerbitzua euskaraz eman ahal izateko.

Langileen euskarazko prestakuntza hizkuntzaren ezagutza mailaren arabera antolatuko da. Euskaraz ez dakiten edo maila apala duten langileek prestakuntza ikastaroak egiten dituzte eta euskara maila ertaina edo altua duten langileek hizkuntza gaikuntzako ikastaroak egiten ahalko dituzte. Hots, departamentuko langileek parte hartzen ahalko dute Euskarabideak antolatutako ikastaroetan, bai ikastaro arruntetan, bai berariazkoetan. Lehentasuna izanen dute Hizkuntza Planetako 2.3 puntuan zehazturiko lehentasunezko unitateetako langileek. Hizkuntza eskakizuna ezarria duen plaza betetzen duen langileak, ez badu eskakizun hori egiaztatua, lehentasuna izanen du ikastaroetarako zerrendetan, eta jarraitu beharko dio bere plan pertsonalari, zeinetan ezarrita dagoen ordu kopurua, bere hasierako mailaren arabera kalkulatu.

Esan bezala, gaur egun Departamentuetako hizkuntza eskakizuna ezartzeko lanpostuen proposamenak Funtzio Publikoaren esku daude. Hurrengo urratsa, mahai sindikala deitzea izanen litzateke, 2. helburua abian jartzeko. Egun, mahai sindikalean ez da gai hau jorratu, beraz, lanpostu jakin horiei ezin zaie Prestakuntzarik eskaini, prozesua bukatu gabe dagoelako eta proposatutako hizkuntza eskakizunak ez direlako ezarri.

Prestakuntza orokorra

Euskarabideko Prestakuntza Atalak euskara ikastaroak antolatzen ditu euskara ikasi nahi duten Nafarroako administrazio publikoetako langileentzat. Prestakuntza honen azken helburua da langileak euskaraz gaitzea administrazioak harrera eta zerbitzua euskaraz eman ahal izateko, hala eskatzen duen herritarrari.

Horiek horrela, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuak ezartzen duen mailaketari jarraiki, A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetako euskara ikastaroak eskaintzen ditu eta maila horiek egiaztatzeko agiriak lortzeko probak egiten ditu, ikastaroen bukaeran.

Prestakuntza Atalaren matrikulazio datuen analisia

Nafarroako administrazio publikoetako langileek Prestakuntza Atalean izan duten bilakaeraren jarraipena egingen dugu. Horretarako 2019-2022 urte bitarteko ikasturteak landuko ditugu eta soilik Nafarroako Gobernuko langileak aintzat hartuko dira. Izan ere, Nafarroako Administrazio publikoetan lanean diharduten langile guztiek euskara ikasteko aukera dute, eta kopuruak ezberdinak dira.

Euskara ikasteko interesa duten langile publikoen kopurua ebaluazio txosten honetan ematen dena baino handiago da. Izan ere, langile askok euskara beste bide batzuetatik ikasten dute, Nafarroako Gobernuko edo kanpoko beste erakunde batzuetan (Hizkuntza Eskola, Zubiarte, AEK edo IKA, adibidez), baina, datu hauen inguruko informazioa ez dago bateratua, eta hortaz, ez dago langile publikoen datu hau erregistratzerik. Beraz, taula honetan Euskarabideko Prestakuntza Atalak helarazitako datuak islatuko dira bakarrik.

Nafarroako Gobernuak langileen datuak ikasturteka (2019-2022)

		2019-2020	2020-2021	2021-2022
Matrikulazio datuak	Eskaeren datu orokorra	669	561	543
	Plantilla osoaren %	% 2,7	% 2,2	% 2,2
	Onartuak	449	413	446
	Plantilla osoaren %	% 1,9	% 1,7	% 1,9
	Plazarik lortu ez duten langileen %	% 33	% 26	% 18
Trebatutako langileak	Aurrera eramandako ikastaro espezifikoetan parte hartu dutenak (administrarientzako ikastaroa, harrera nola egin...)	50	91	14
Ikastaroetarako baimena duten langileak	Kopuru orokorra	394	225	233
	Onartutakoen %	% 87,7	% 54,8	% 50
Nafarroako Gobernutik diru-laguntza jasotzen duten langile publikoak	Konpentsazioa jaso duten pertsona kopurua	11	11	15

Iturria: Euskarabideko Prestakuntza Atala.

Matrikulazio kopuruari erreparatuz, azken hiru ikasturteetan eskaintzen diren plazak baino eskaera gehiago jaso ditu Prestakuntza Atalak. Ondorioz, eskaera egin dutenen % 33 eta % 18 artean kanpoan geratu dira. Halaber, 2020an matrikulazio kopuruan jaitsiera esanguratsua ikus daiteke (% 16ko jaitsiera) eta 2021-2022ko matrikulazioa antzera joan da. Jaitsiera horren azalpenen artean, ezbairik gabe, pandemiaren eragina dago.

Euskara ikasteko, hobetzeko edo kualifikatzeko ikastaroak egiten dituzten langileen artean batzuek baimena behar dute eta lortzen dute³. 2019-2020an ikastaroa egin zutenen % 87,7 izan zuen baimena, 2020-2021ean % 54,8k eta 2021-2022an % 50ak. Emandako baimenen

³ **195/1993 Foru Dekretua**, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek euskarazko ikastaroak egiteko, ordu eta diru konpentsazioak eguneratzen dituen

jeitsiera hau ere pandemiaren ondorioz gertatu da, izan ere baimenarekin ikasten duten langileen kopuru handi bat Osasun Departamentutik dator.

3. HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK

Ahozko arreta elebiduna errazteko bi baldintza bete behar dira:

- Herritarraren eta administrazioko langilearen euskararen ezagutza.
- Aurrean (edo telefonoz) dagoen hizlaria euskaldun bezala identifikatu ahal izatea. Identifikazio hau modu ezberdinetan egin daiteke, lehen hitza euskaraz eginez adibidez, hizkuntza irizpideak landuz edo identifikagarriak erabiliz.

Aurrean esan bezala, Foru Administrazioko langileen ezagutza daturik ez dago jasota. Hori dela eta, helburu honen neurketa egiteko berariazko galdetegi bat prestatu da ezagutzaren datu aitortuak eman ditzaten. Galdetegi hau ez da pasa langile guztien artean. Soilik langile profil jakin baten artean hedatu da: eremu euskalduneko Foru Administrazioko 593 langileak (irakasleak kanpo, aurretik aipatutakoagatik). Alegia, lehen pauso bezala euskara ofiziala den eremuan hedatu da.

Galdetegia eremu euskaldunera mugatzeak zenbait departamentu aztertu gabe geratzea ekarri du. Izan ere, behean agertzen diren departamentuak dira eremu euskaldunean ordezkaritza dutenak, eta gainerakoek ez dute egoitzarik, ezta, beraz, langilerik, eremu euskaldunean. Bidalitako 593 galdetegietatik 92 langileren erantzunak jaso dira: eremu euskalduneko langileen %15,5, eta langile kopuru osoaren %0,4. Erantzun duten langileen euskararen ezagutza eta erabilera aitortua jaso da. Hona hemen jasotako emaitzak:

Eremu euskalduneko langileei 2022an bidalitako eta erantzundako galdetegiaren datuak, departamentuka

Departamentua	Eremu euskalduneko langile kopurua	Eremu euskalduneko hizkuntza eskakizunak	Erantzun duen langile kopurua	Erantzun duen langileen ehuneko
Eskubide Sozialak	10	3	3	% 3
Hezkuntza (irakaslerik gabe)	49	32	28	% 30
Kultura eta Kirola	10	8	4	% 4
Landa Garapena eta Ingurumena	53	4	9	% 10
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	218	21	7	% 8
Lurralde Kohesioa	13	0	1	% 1
Migrazio Politikak eta Justizia	15	0	0	% 0
Osasuna	225	81	40	% 44
Guztira	593	149	92	% 100

Iturria: Euskarabidea eta Osasunbidea.

Galdetegi horren bidez, langileen euskararen ezagutza jaso eta aztertu da. Horretarako, euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri eta idazteko gaitasunari buruz galdetu da.

Galdetegia erantzun duten langileek adierazitako euskara ezagutza datuak, ezagutza esparruka.


	Ulermena	Mintzamena	Irakurmena	Idazmena
Euskaraz ongi ulertu/adierazteko gaitasuna	% 82	% 65	% 72	% 61
Elkarrizketa eta idatzi errazak ulertu/adierazteko gaitasuna	% 12	% 25	% 19	% 28
Euskaraz hitz batzuk ulertu/adierazteko gaitasuna	% 2	% 6	% 5	% 5
Ez daukat euskara ulertu/adierazteko gaitasunik	% 4	% 4	% 4	% 6

Iturria: Euskarabidea eta Osasunbidea.

Emaitzen arabera, eremu euskaldunean erantzun duten % 72ak edo gehiagok adierazi du euskaraz ongi ulertzeko gaitasuna, bai ahozkoa eta baita idatzizkoa ere. Eta % 61ek edo gehiagok adierazi du euskaraz ongi hitz egin eta idazteko gaitasuna. Beraz, ondorio orokor moduan, galdetegia erantzun dutenen artean, %60ak baino gehiagok adierazi du euskara gaitasun altua 4 eremuetan.

Langile bakoitzaren lanpostuan euskararen erabilerari buruz galdetzean, %66,7k oso ohikoa dela eta %14,6k maiz izan ohi dela adierazi dute.


Galdetegia erantzun duten langileek adierazitako lanpostuko euskararen erabilera.



Iturria: Euskarabidea eta Osasunbidea.

Egungo titulazioa eta aurrera begirako prestakuntza beharrei dagokionez, % 39ak adierazi du C1 titulua eskuratu duela eta %71,8k adierazi du euskarari dagokionez, trebakuntza espezifikoa jasotzeko beharra.

Galdetegia erantzun duten langileek euskarazko titulazio edo baliokideari buruzko datuak.



Iturria: Euskarabidea eta Osasunbidea.

Identifikazioari dagokionez, bestalde, “Nahi baduzu, nirekin euskaraz” lemarekin formatu ezberdinetako materialak banatu dira: mahai gainekoak eta pinak. Jarraian ikus daitekeen diseinu bera erabili da e-postako sinaduraren gehigarri gisa:

Nafarroako Gobernuko langileentzako euskaraz artatzeko identifikagarriaren diseinua.



Iturria: Euskarabidea.

Euskarri horiek hizkuntza eskakizuna ezarrita duten langile guztiei banatu zaie, eta hala eskatu zuten lehentasunezko unitateetako gainerako langileei ere.

Identifikagarri hauek aurrez aurreko komunikaziorako dira erabilgarriak, baina argi dago telefono edo bideodei bidezko harremanak ere garrantzi handia hartu dutela, bereziki pandemia garaian, eta baita horren ondoren ere. Kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuak ez duela herritarrekiko ahozko harremanetarako sistema zentralizatu bat, hortaz harreman horiek zein hizkuntzatan egiten diren jasotzeko modurik ez dago momentuz. Herritarren Foru Administrazioaren arretagune gisa 012 telefonoa eta bere zerbitzuak har badaitezke ere, departamentuetako unitateek jasotzen dituzten herritarren komunikazioak ez dira atal horren bidez erregistratzen, datuak sakabanatuta daudelarik. Herritarren Arretarako atalak egindako diagnostikoaren arabera, Gobernuak 273 aurrez aurreko arretagune ditu eta 325 arretarako telefono zenbaki.

Aipatu identifikagarriaz gain, Osasunbidean bere errealitateari egokitutako lanak egin dira. Alde batetik osasun profesionalentzako pin formatuko identifikagarriak, eta bestetik osasuneko hiztegi terminologikora egokitutako arretarako gidak, arreta elebiduna egiteko hainbat irizpide eta gomendiorekin.


Bestalde, Nafarroako Gobernuak babesten duen Euskaraldia⁴ ekimenaren azken edizioan, Foru Administrazioaren baitan 84 Arigunek⁵ eman zuten izena. Horrek langile publikoen

⁴ 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra izan zen eta euskararen ahozko erabilera sustatzea du helburu

⁵ Arigunea: euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean.

interesa agerian utzi du, parte hartzea borondatezkoa izan baita. Hauek dira Arigune bezala bere ekimenez parte hartu duten departamentuak:

2022 urteko edizioko Euskaraldiko Gobernuako Ariguneak, departamentuka



Iturria: Euskaltzaleen Topagunea.

4. HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK

Administrazioak sortzen duen informazio idatzi kopuru handiak eta berau sortzeko abiadurak zaildu egiten du dagoeneko sortuta dagoen guztia eta egunerokoan sortzen den oro azertu eta bi hizkuntzatan ematea bermatzea, gaur gaurkoz langile gehienak ez baitira elebidunak eta lan hizkuntza gaztelania baita. Hori dela eta, idatzizko informazioa bi hizkuntzatan emateko helburuari erantzuteko, leheneste ariketa bat egin izan behar da.

Halaber, herritarrekiko informazio idatziaz ari garenean, azken urteetan herritarren eta Gobernuaren arteko idatzizko harreman telematikoak hartu duen garrantzia izan behar dugu kontuan. Izan ere, eta bestelako komunikazio kanalez gain, gaur egun aukera baitago prozedura administratiboaren pausu guztiak paperik erabili gabe egiteko. Edonola ere, hizkuntza plangintzaren helburua da departamentuek erabiltzen dituzten idatzizko komunikazio bide guztiak (digitalak zein paperekoak) aztertzea eta hauek ele bitan eta aldebereotasuna bermatuz eskaintzeko urratsak ematea.

Helburu honi heltzeko, lana zortzi ardatz nagusitan banatu da:

1. Webguneak
2. Tramite elektronikoak
3. Sare sozialak
4. Herritarrentzako eta instituzioentzako komunikazioak
5. Albisteak
6. Komunikazio kanpainak
7. Argitalpenak
8. Itzulpen zerbitzua

WEBGUNEAK

Foru Administrazioaren webguneak gaur egun arretagune birtualtzat ulertu ditzakegu, eta nafarroa.eus ataria da zerbitzu guztiak zentralizatzen dituen eta horren bidez estekatzen dira bestelako webguneak.

Webguneak aztertzerakoan, kontuan izan behar da hauen itzulpen prozesuak duen konplexutasuna. Webguneen egitura zabalari dagokionez, web orriak maila desberdinetan banatu dira azterketari koherentzia emateko helburuz: lehen mailako orriak (web atariaren orri nagusia), bigarren mailako orriak (menu nagusian agertzen direnak) eta hirugarren mailako orriak (webgunearen barneko egituran daudenak). Bestalde, web orri hauetan eduki mota ezberdinak argitaratzen dira, itzulpen behar ezberdinak dituztenak: testuak, bideoak, irudiak, bannerrak, aplikazioak, eduki estekatuak, etab. Horri gehitu behar zaio askotan edukiak “bizirik” daudela, hau da, etengabeko eguneratze prozesuan, eta horrek itzulpenaren aldiberekotasuna eskatzen duela.

Webgune bat ele bitan dagoela esateko, kontsideratu da gutxienez lehen mailako orrien edukiak ehuneko ehunean ele bitan izatea, eta bigarren eta hirugarren mailako edukiak %80tik gora ele bitan egotea. Zenbait kasutan webguneako atal batzuk daude soilik euskaratuta, eta partzialki ele bitan daudela adierazi da kasu horietan.

Gobernuko webguneen arduradunen irizpideei jarraituz, webguneak bi multzo nagusitan bereizi dira:

- Webgune korporatiboak: Administrazio Publikoek legez zerbitzu telematikoak eskaintzeko izan behar dituzten webguneak, hauek dira:
 - [Nafarroa.eus](#) ataria
 - [Gobernu irekia](#)
 - [Nafarroako turismoa](#)
 - [Kontratazioaren ataria](#)
- Departamentuetako bestelako webguneak: departamentu bakoitzak bere ardurapean kudeatzen dituen webguneak.

Nafarroa.eus Ataria:


11/2019 Foru Legeak ezartzen du Nafarroako Gobernuaren web ataria Foru Administrazio Publiko osorako sarbide elektronikorako webgunea dela, eta 69. artikulua webgune honen elebitasuna bermatzen du:

69.4 Nafarroako Gobernuaren web ataria gaztelaniaz eta euskaraz egonen da. Era berean, interes orokorrekoa dela jotzen bada, beste hizkuntza batzuetan ere emanen da informazioa.

Nafarroa.eus atariak betetzen du legeak ezarritako funtzio hori. Gobernuaren arretagune nagusia izateak eduki aldetik webgune handiena izatea eragiten du, eta, hori dela eta, webgune honen bidez beste webguneetara iristeko bidea ematen da (hau da, Gobernuko webgune guztiek esteka dute nafarroa.eus atarira).

Atariaren egitura eta edukiak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiaren barne dagoen Navarra.es Atariaren Atalak kudeatzen ditu, eta gaiak departamentuka antolatu ordez, legealdiz legealdi egonkorrak diren 20 gairen arabera sortu dute egitura. Aipatzekoa da 2019-2023 legealdi honetan atari hau berritze prozesu sakonean ibili dela, edukien sinpletzea eta diseinua hobetzea suposatu duelarik, eta prozesu horren pausu guztietan elebitasuna kontuan hartu izan dela. Hurrengo grafikoan Nafarroa.eus atariko 20 gaien egoera ikusi dezakegu:

Nafarroa.eus atariko gaien egoera



Iturria: Nafarroa.eus ataria.

Ikus daitekeenez, planen hasieran 20 gaiak eguneratu gabe zeuden, eta 7 gaitan (% 35) eduki batzuk euskaratuak zeuden, gai horien ardura zuten departamentuen ekimenez. 2022 urtearen bukaeran, eguneratze prozesua ez zegoen erabat amaitua, baina hasierako egoerarekin aldea nabarmena da: 20 gaietatik bakarria ez da oraindik eguneratu (nahiz eta ele bitan dagoen), eta horietatik 15 gai (% 75) euskaratuta daude. Eguneratu diren 4 gai (% 20) euskaratze prozesuan daude.

Bestalde, nafarroa.eus atariko beste eduki anitzen artean hurrengoak nabarmenduko ditugu, duten tamaina eta garrantziagatik:

- **Tramiteak**: herritarrak eta Foru Administrazioaren arteko harremanak egiteko bide ofiziala dira, instantziak, deialdiak, lizentziak edo dirulaguntzak, besteren artean (hurrengo puntu batean jorratuko da).
- **Albisteak**: Gobernuak komunikazio zerbitzuetatik argitaratzen diren albisteak dira, tokiko hedabideetan ohiartzuna dutenak (hurrengo puntu batean jorratuko da).
- **Datu estatistikoak**: Nafarroako Estatistika Institutua-NASTAT erakundeak argitaratzen dituen Nafarroari buruzko datu estatistikoak biltzen ditu eta gaztelaniaz dago soilik.
- **Nafarroako Aldizkari Ofiziala**: Euskararen Legeak ezartzen du Nafarroako Aldizkari Ofiziala ele bitan eta aldi berean argitaratuko dela, eta horrela egin da 6. ataleko

(bestelakoak) zenbait eduki izan ezik. 1996 urtetik atzerako aldizkariak ez daude atarian argitaratuta.

- [Lexnavarra](#): Nafarroako legedi finkatuaren datu basea da eta partzialki dago euskaratuta. Aipatu behar da nafarroa.eus-en integraturik dagoen plataforma honen kudeaketa kontratazio publiko baten bidez egiten dela.
- [Gobernuko organigrama](#): Nafarroako Gobernuaren organigrama, zuzendaritzen eta burutzen izenak biltzen dituena, plangintzaldiaren amaieran argitaratu da lehen aldiz ele bitan.
- [Aurrekontuak](#): Nafarroako kontuak eta Aurrekontu Orokorrak gaztelaniaz daude soilik eskuragarri. Aipatzekoa da urteroko Aurrekontuen Legea NAOn ele bitan egon arren, hauen diru-partidak gaztelaniaz soilik daudela eskuragarri.

Gobernu Irekia, Nafarroako Turismoa eta Kontratazioaren Ataria:

Nafarroako Gobernuaren beste 3 webgune korporatibo hauen hasierako egoera honakoa zen: Gobernu Irekia eta Nafarroako Turismoa ele bitan zeuden oro har 2019an, eta Kontratazio Ataria berriz, soilik gaztelaniaz. Amaierako egoeran, 2022ko bukaeran, hirurak ele bitan daude.

Departamentuetako bestelako webguneak:

Webgune korporatiboez gain, 249 webgune ezberdin identifikatu dira Gobernuko departamentuen baitan. Domeinu eta plataforma propioz eraikitako webguneak dira, departamentu bakoitzaren beharretara egokitzeko, eta zenbait kasutan hauen kudeaketa kontratazio publiko bidez egiten da. 249 horien artean, asko tamaina eta hedapen txikiko webguneak dira. Badira, ordea, 6, daukaten dimentsio eta hedapenagatik eta departamentua edo zuzendaritza baten webgune ofiziala izateagatik. Hori dela eta, diagnostikoa egiteko orduan inpaktu handiko sei webgune horiek aztertzea lehenetsi da.

Departamentuen esku dauden webgune esanguratsuenak

Departamentua	Webgunearen izena	Egoera 2019ko hasieran	Egoera 2022ko bukaeran
Hezkuntza	Hezkuntza	Ele bitan	Ele bitan
Kultura eta Kirola	Cultura Navarra	Ele bitan	Ele bitan
Kultura eta Kirola	Nafarroako Kirolaren Institutua	Ele bitan	Ele bitan
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barnea	Nafarroako Gazteriaren Institutua	Oro har gaztelaniaz	Ele bitan
Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua	Nafarroako Geoataria	Daturik gabe (sortu berria)	Ele bitan
Eskubide Sozialak	Errealitate Sozialaren Behatokia	Ele bitan	Ele bitan

Iturria: Euskarabidea.

TRAMITE ELEKTRONIKOAK

Administrazioaren digitalizazioarekin, eta bereziki pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, tramite elektronikoek berebiziko garrantzia hartu dute hiritarrak administrazioarekin harremanetan sartzeko orduan. Tramite elektronikoen helburua da administratuari bere eskaerak eta gestioak erraztea, bide elektroniko eta digitalen erabilerari esker. Bi tramite elektroniko mota daude: herritarrei zuzendutakoak, nafarroa.eus atarian daudenak; eta toki entitateei zuzendutakoak, Gobernuarekin egindako komunikazio elektroniko seguruaren bidez kudeatzen direnak.

Azpmarratzekoa da 2022an Nafarroako Parlamentuak 10-22/MOC-00005 mozioa aho batez onartu zuela. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Gobernuaren beraren eta haren erakunde autonomoen egoitza elektronikoko edukiak, tramitazioak zein bestelako jarduerak euskaraz eskuragarri egon daitezen eta horretarako behar den plangintza egin dezan.

Herritarrei zuzendutako tramiteak:

Herritarrekiko tramite elektronikoa dira nafarroa.eus atariaren ardatz nagusietako bat. Izan ere, ez da informazioa emateko soilik, herritarrekiko elkarreragin administratiboa sortzen baita tramiteen bidez. Kontuan hartu behar da egun 1.886 tramite daudela aktibo (kopurua aldakorra da), eta tramiteen ardura deszentralizatu dagoela Gobernuko unitate ezberdinetako 200 langile editoreren esku.

Bi tramite mota bereizi dira:

- Urte osoan zehar irekita dauden tramiteak: egonkorak dira, aldaketa gutxiago izaten dituzte edukien aldetik eta, hortaz, itzulpenaren ikuspegitik tramite hauei eman zaie lehentasuna. Esate baterako hauek dira tramite egonkor erabilienak: Erregistro Elektroniko Orokorra, tramiteak epaitegi eta auzitegiekin, aurretiko hiztordua eskatzea Nafarroako Ogasunean, osasun etxean edo Nafar Lansaren, enplegu eskaera kudeatzea, bikote egonkorren erregistroa edo Errentaren edo Ondarearen aitortpenak kontsultatzea.
- Aldizkako tramiteak: aldakorrak dira, aldaketa ohikoak dituzte eta hauen iraupena urte bat baino beheragokoa da. Edonola ere, ohikoa da tramite hauek aldizka eta urtean behin argitaratzea. Aldizkako tramite erabilienak nagusiki dirulaguntza deialdiei eta enplegu publikoari buruzkoak dira.

Urte osoan irekita dauden tramiteei dagokienez, ondoko taulan laburtzen dira hasierako egoeraren datuak, egindako lana, eta bukaerako egoera. Bost Departamenturen kasuan, urte osoko tramiteen itzulpenarekin bukatu da eta ele bitan daude urte osoan irekita dauden tramite guztiak, gorri kolorez ageri dira hurrengo taulan:

Urte osoko tramiteen egoera 2019-2022

Departamentua	Urte osoko tramiteak	Hasierako egoera 2019		Bukaerako egoera 2022	
		Euskaratuta eta eguneratuta	%	Euskaratuta eta eguneratuta	%
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barnea	69	21	% 30,88	54	% 79,41
Herritarrekiko Harremanak	2	0	% 0,00	2	% 100,00
Hezkuntza	17	6	% 35,29	6	% 35,29
Osasuna	25	1	% 4,00	7	% 28,00
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	119	6	% 5,17	78	% 65,55
Kultura eta Kirola	19	1	% 5,26	19	% 100,00
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoak	35	3	% 11,54	35	% 100,00
Landa Garapeneko eta Ingurumena	89	7	% 7,87	60	% 67,42
Ekonomia eta Ogasuna	160	55	% 34,38	134	% 83,75
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitala	2	1	% 50,00	2	% 100,00
Eskubide Sozialak	76	3	% 3,95	61	% 80,26
Lurralde Kohesioa	24	3	% 12,50	17	% 68,00
Migrazio Politiketako eta Justizia	19	4	% 21,05	19	% 100,00
Guztira	643	111	% 17,26	485	% 75,43

Iturria: Nafarroa.eus Atariaren Atala.

Tramite batzuk ez dira egonkorrak eta epe jakin batean daude aktibo (hilabete batzuk normalean), esate baterako, lan eskaintza publikoak edo dirulaguntza deialdiak. Horretaz gain, eguneraketa tasa handiko tramiteak dira, horregatik plangintzaldi honetan aldikako tramite hauetako batzuk aukeratu dira itzultzeko pilotaje moduan. 2021-2022ko epealdian 87 tramite argitaratu ziren ele bitan, orotara argitaratu diren 220 ingururen %39,5.

Aldikako tramiteen egoera 2021-2022

Departamentua	Ele bitan argitaratutako aldikako tramiteak 2021	Ele bitan argitaratutako aldikako tramiteak 2022
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barnea	0	5
Herritarrekiko Harremanak	0	1
Hezkuntza	0	0
Osasuna	0	1
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	0	4
Kultura eta Kirola	1	12
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoak	0	7
Landa Garapeneko eta Ingurumena	0	5
Ekonomia eta Ogasuna	0	1
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitala	2	2
Eskubide Sozialak	4	40
Lurralde Kohesioa	0	1
Migrazio Politikak eta Justizia	0	3
Guztira	7	80

Iturria: Euskarabidea.

Toki entitateei zuzendutako tramiteak:

Nafarroako Gobernuako departamentuek bideratzen dituzten deialdi, baimen edo zerbitzu eskaintzen artean badira soilik Nafarroako toki entitateei zuzenduak direnak. 103/2017 Foru Dekretuko 19. artikulua aintzat hartuz, besteren artean eremu euskalduneko toki entitateei komunikazioak elebitan eskain behar zaizkie.

Tramite hauek elektronikoki gauzatzen dira, baina nafarroa.eus atariko tramiteak ez bezala, kasu honetan Gobernua eta toki entitatearen arteko komunikazio segurua bermatzen duen plataforma informatikoa erabiltzen da, administrazio publikoen arteko sare mugatua balitz bezala.

Horretarako erabiltzen den plataformak ez du edukiak hizkuntza bat baino gehiagotan argitaratzeko aukerarik ematen, hortaz bertan dauden 500 tramitetik gora gaztelaniaz daude, hizkuntzaren aukera bermatuko duen plataforma informatikoa berritzeko zain.

SARE SOZIALAK

Sare sozialek, administratuekiko berehalako komunikazio zuzena eta parte-hartzailea ahalbidetzen dute. Horregatik Nafarroako Gobernuak, gaur egun, 12 profil korporatiboak eta departamentuen kanal propioak aintzat hartuz (sektorialak), [95 profil ditu](#) irekita hainbat saretan. Nagusiki Twitter, Facebook eta Youtube erabiltzen dira.

Atal honetan egoeraren diagnostikoa egin da, baina plangintzaldi honetan ez da esku hartzerik bideratu, edukien eguneratze tasa oso altua baita eta sare bakoitzaren kudeatzailearen edo kudeatzaileen hizkuntza gaitasunaren araberakoa baita eduki elebidunak argitaratzea. Ordea, gaur egun sare sozialek duten pisua eta interakzio gaitasuna aintzat hartuz, aurrera begira lan ildo hau lantzea aurreikusia dago. Azterketa honek eremu honetara gerturatzeko aukera eskaini du plangintzaldi honetan, hurrengoetan lanketari ekiten hasteko.

Aipatzekoa da, halaber, sareen egoera oso bestelakoa dela batetik bestera: batzuen funtzionamendua apala da, eta beste batzuk, berriz, oso aktibo daude egunerokoan. Gauzak horrela, 2019an lehenengo azterketa egin zen euskararen erabilerari dagokionez. Horren ondoren, honako ondorioak atera ziren:

- Salbuespen batzuekin, euskararen erabilera eskasa zen, edo kasu askotan ez zen agertzen.
- Ez zeuden irizpide bateratuak euskararen erabilerari buruz (ezta, oro har estilo libururik ere).
- Sareen kudeaketa hainbat modutan egiten zen.

2022 urtearen bukaeran diagnostiko bera burutu da eta egoera zertxobait hobetu dela antzeman daiteke. Ondoko taulan Nafarroako Gobernuaren sare sozial erabilienak edo bisita kopuru gehien jasotzen dituztenen hautaketa bat agertzen da, zehazki kontu korporatibo eta sektorialen artean, Twitter, Facebook eta Youtube izan ziren aktiboenak.

Egoera “oro har” ele bitan edo gaztelaniaz dagoela esateko irizpidea izan da erakunde edo unitate administratiboak sortutako komunikazio arruntak, testuak, irudiak zein bideoak hizkuntza aldetik horrela egotea, edukien txertatzeak, birbidaltzeak edo interakzioak kontutan

hartu gabe. Hurrengo taulan ikusi daiteke sare sozialen egoera orokorra, eta letra lodiz nabarmendu dira aurrera pausoa eman dutenak:

Nafarroako Gobernuaren sare sozial erabilieneen egoera 2019-2022.


Kontuaren izena	Sare Soziala	Kontu mota	Egoera 2019an	Egoera 2022ko bukaeran
Nafarroako Gobernua	Twitter	Korporatiboa	Heren bat ele bitan	Oro har ele bitan
Nafarroako Gobernua	Youtube	Korporatiboa	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Nafarroako Gobernua	Facebook	Korporatiboa	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Nafarroako Lehendakaria	Twitter	Korporatiboa	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Nafarroako Lehendakaria	Youtube	Korporatiboa	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Nafarroako Lehendakaria	Facebook	Korporatiboa	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Berriak	Twitter	Korporatiboa	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Prentsa Aretoa	Youtube	Korporatiboa	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Navarra.es	Twitter	Korporatiboa	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Gazte Txartela	Twitter	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Gazte Txartela	Youtube	Sektoriala	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Gazte Txartela	Facebook	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Gazteria	Twitter	Sektoriala	Heren bat ele bitan	Oro har ele bitan
Berdintasuna	Twitter	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Berdintasuna	Facebook	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Foruzaingoa	Twitter	Sektoriala	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Suhiltzaileak	Twitter	Sektoriala	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Kultura	Twitter	Sektoriala	%70a ele bitan	Oro har ele bitan
Kultura	Facebook	Sektoriala	Oro ha gaztelaniaz,	Oro har ele bitan
Turismo Navarra	Twitter	Sektoriala	Gaztelaniaz	Oro har ele bitan
Hezkuntza	Twitter	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Hezkuntza	Facebook	Sektoriala	Oro har gaztelaniaz	Oro har gaztelaniaz
Nafarroa Green	Facebook	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Osasuna	Twitter	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan
Osasuna	Facebook	Sektoriala	Oro har ele bitan	Oro har ele bitan

Iturria: Publizitate Institutuzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atala.

Aipatzekoa da Youtube plataforma dela ele biko eduki gutxien aurkezten duena, izan ere bideoen itzulpenek bestelako ezaugarriak baitituzte (ahozko bikoizketa, aldibereko interpretazioa, azpigituluak eta hauen hizkuntza aukera, baliabide teknikoak...).

Beheko grafikoan ikus daiteke 2022ko bukaerako egoera orokorraren laburpen bat, non ikusten den, %60koa dela oro har ele bitan egiten den erabilera.

Nafarroako Gobernuaren sare sozial erabilieneen egoera 2022an



Iturria: Publizitate Institutuzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atala.

HERRITARRENTZAKO ETA INSTITUZIOETARAKO KOMUNIKAZIOAK

103/2017 Foru Dekretuak, eremu euskaldunari dagokionean, bere 9. artikuluan, arautzen du ele bitan egiten direla eremu euskalduneko pertsona fisiko edo juridikoei zuzentzen zaizkien jakinarazpenak eta komunikazioak, eta eremu euskaldunaren barnean ondorioak izanen dituzten herritarren erabilerarako inprimakiak eta idazki ofizialak ere ele bitan idatziko direla.

Eremu euskalduneko toki administrazioari zuzendutako komunikazioei dagokienez, 103/2017 Foru Dekretuak, hauxe esaten du puntu honi dagokionez 19. artikuluan (Administrazio publikoen arteko harremanak):

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentralek eremu euskaldunean dauden administrazio horretako bestelako zerbitzuetara edo eremu horretako toki entitateetara bidalitako idazki ofizialak eta komunikazioak ele bitan idatziko dira, aldean artean hizkuntza batean bakarrik egiteko akordiorik izan ezean.

Foru Administrazioa eta herritarren eta toki administrazioen arteko komunikazio bideak ugaritu egin dira azken bolada honetan. Esan bezala, teknologia digitalaren aurrerapenarekin, papera gero eta gutxiago erabiltzen da. Hala ere, Administrazioak oraindik zenbait komunikazio paperezko eskutitzen bidez egiten ditu, eta badira zenbait inprimaki erabilgarri: komunikazio espezifikoak, jakinarazpenak, txostenak, isunak, zitazioak...

Bide digitalen bidez herritarrekin harremanetan jartzeko eta zerbitzuak eskaintzeko adibide batzuk dira, besteak beste: Osasun Karpeta, SMSak, posta elektronikoak, Errenta Aitorpenaren kanpainak edo jakinarazpen telematikoak.

Komunikazio hauen espezifikotasuna eta aniztasunagatik, plangintzaldi honetan ezin izan da modu sistematiko batean arlo hau aztertu. Edonola ere, gaur egungo egoeraren ikuspegi bat izateko, eta duten garrantziagatik, lau departamentutako 5 unitate jakin aukeratu eta beraien komunikazio espezifiko batzuk aztertu egin dira: Eskubide Sozialak, Ekonomia eta Ogasuna (Ogasuna), Landa Garapena eta Ingurumena (Abeltzaintza Zerbitzua eta Basoen eta Ehizaren Zerbitzua), eta Kultura eta Kirola (Kiroleko Zuzendaritzaordea).

Aurre lanketa honen ondorioz, honakoa identifikatu da: komunikazioetan orokorrean, eta bereziki idazki espezifiko batzuen kasuan (ebazpenak kasu), ez da beti eremu euskaldunera ele bitan bidaltzeko beharra errespetatzen. Horrek ez du esan nahi beste kasu askotan betetzen ez denik. Unitateek aitortutako zailtasun handiena izan da ez dagoela baliabide nahikorik legeak ezartzen dituen epeen barruan ele bitan dokumentuak prestatzeko.

ALBISTEAK

Albisteak dira nafarroa.eus atariaren atal nagusietako bat. Bertan, Nafarroako Gobernu eta Foru Administrazioaren inguruko albisteak argitaratzen dira egunero, irudi eta bideoekin batera gehienetan. Departamentuetatik jasotako prentsa oharrak, prentsaurrekoak edo kanpainak jasotzen dira hemen, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendaritzaren koordinaziopean.


Albisteak ele bitan argitaratzen dira oro har, baina modu desberdinetan. Euskarazko bertsioa gaztelaniazko bertsioaren laburpen bat da orokorrean (albisteen %69), eta albistearen garrantziaren arabera, egunero bat edo bi euskaraz argitaratzen dira osorik (%29). Honen arrazoia itzulpen zerbitzua kontratazio publiko baten bidez egiten delako da eta kontratazio horren aurrekontuak ez duelako albiste guztiak osorik itzultzeko ematen. Kasu gutxi batzuetan ez da berria itzuli, eta berrietan txertatuta doazen bideoetan ez dago itzulpenik, kanpaina bateko bideoa ez bada.

Hau da euskarazko albiste laburtuen azpian agertzen den mezua:

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).

Hurrengo grafikoan ikusi daiteke albisteen datuen laburpena:

Nafarroako Gobernuaren albisteen azterketa 2022ko abenduaren 1etik 31ra



Iturria: Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia.

KOMUNIKAZIO KANPAINAK

Atal honetan Publizitate Instituzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atalak emandako datuak islatzen dira. Ez dira jasotzen departamentu bakoitzak bere kabuz egindako kanpainak, ez baitira horien gaineko datuak jasotzen.

Nafarroako Gobernuaren publizitate kanpainen kudeaketaren ardura Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiarena da, eta guztiak ele bitan daude 2016 urtetik aurrera. Ikus-entzunezko materialetan eta digitaletan ohikoena bi euskarritan argitaratzea, hizkuntza koofizialetako bakoitzeko bana.

Nafarroako Gobernuaren publizitate kanpaina instituzionalen kopurua 2019-2022.

2019	2020	2021	2022	Guztira
58	48	57	59	222

Iturria: Publizitate Instituzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atala.

ARGITALPENAK

Argitalpenen Atala Proiektzio Institutuzionalaren Zerbitzuaren barruan dago eta, nahiz eta, oro har, argitalpenak egiteko ekimena departamentu eta erakunde autonomoei dagokien, eta hauek aurkezten dituzten originalak idatzita eta diseinatuta, Atal honek koordinazio eta aholkularitza lanak egiten ditu, eta argitalpen-produktuaren inprimaketa edo fabrikazioa kudeatzen du.

Jarraian, Argitalpenen Atalak 2019-2022 aldian garatutako jardueraren daturik garrantzitsuenak eskaintzen dira, bai argitalpen motaren arabera, bai argitaratutako titulu edizio-hizkuntzaren arabera.

Argitalpenen edizio hizkuntzari dagokionez, 2019 eta 2022 artean argitaratutako 1.475 titulu berriek sailkapen hau izan dute:

Argitalpenen ekoizpen kopurua edizio-hizkuntzaren arabera 2019tik 2022ra.

Edizio-hizkuntza					
Materiala	Gaztelaniaz	Ele bitan	Euskaraz	Beste bat	Guztira
Liburuak	96	69	28	0	193
Argitalpen seriatuak	2	6	2	0	10
Liburuxkak	154	114	77	34	379
Orriak eta txartel inprimatuak	132	106	65	5	308
Mapak eta planoak	50	8	17	48	123
Kartelak	99	288	58	7	452
Formatu anitzeko kita	0	2	0	0	2
Disko trinkoak	5	2	1	0	8
Guztira	538	595	248	94	1475

Iturria: Argitalpenen Atala.

Datu horiek ikusita, adierazi behar da argitaratzen diren kartel gehienak ele bitan daudela, gaztelaniaz eta euskaraz euskarri berean, bai hedapen orokorreko helburuagatik, bai formatu eta mezu laburrengatik, ele biko testuen irakurgarritasuna errazten baitute. Hala ere, liburu eta liburuxken artean jaitsi egin da ele biko inprimakien proportzioa, gaztelaniazko eta euskarazko edizio bereizirik aukeratu baitira gehien. Aipatzekoa da, halaber, eremu akademikotik idatzitako eta publiko espezializatuago bati zuzendutako titulu asko gaztelaniaz bakarrik argitaratzen direla. Ikusi daiteke ere ediziorako euskarri elebidun bakarra erabiltzea

ohikoagoa dela karteletan, argitalpen seriatuetan eta formatu anitzeko kitetan, besteetan baino.

ITZULPEN ZERBITZUA

Dokumentazio guztia ele bitan argitaratzea, eta horretan aldiberekotasuna lortzea, erronka handia da gaur gaurkoz. Esan bezala, sortze hizkuntza gaztelania da kasu gehienetan, eta gero itzuli egin behar dira. Gaur egun, Nafarroako Gobernuko unitate gehienek ez dute autonomia garatu prozesua hau beren kabuz egiteko, izan ere hizkuntza eskakizuna duten langile nahikorik ez dago unitateetan, oinarriko dokumentazio arrunta ele bitan sortzeko.

Departamentuek bere baliabideen bidez beharrezko itzulpen lanei aurre egin ezin badiote, ez itzultzaile automatikoen bidez ezta kontratazio publikoak eginez ere, Euskarabideak Itzulpen Atala du unitateei zerbitzu hori emateko. Itzulpenak eraginkorki bideratzeko, Itzulpenflow sistema sortu da, eta Nafarroako Gobernuaren administrazioan zabaldu da legealdi honetan.

Itzulpenen sistema ordenatzea da Itzulpenflow plataforma informatiko berriaren helburua. Horretarako protokolo bat ezarri da, non departamentuetako unitate (Zerbitzu edo Atal mailan) guztietan, zerbitzu honen arduradun bat dagoen. Arduradun horren lana da bere unitatean sortzen diren itzulpen eskaerak jaso eta Itzulpen Atalera bidaltzea, eta behin itzuli direnean, eskatzaileari bueltatzea. Itzulpen lan bakoitzari epe muga ezartzen zaio duen urgentziaren arabera, eta bidaltzaileak hasieratik daki noizko egonen den lana egina.

Zerbitzu hau 2019an jarri zen martxan eta garapen eraginkorra izan du. Hona, zerbitzua martxan jarri zenetik egin den lanaren laburpen bat, urteka eta 2022ko urtearen kasuan, adibide gisa, departamentuka:

Itzulpen kopuruak 2019-2022

Urtea	Eskaera kopurua	Hitz kopurua
2019	1788	2.085.458
2020	2853	3.330.041
2021	3786	5.743.482
2022	3240	4.367.213

Iturria: Itzulpen Atala.

2022ko urteko itzulpenak, departamentuka

Departamentua	Eskaeren kopurua	Hitz kopurua	Hitzen %
Ekonomia eta Ogasuna	144	135.915	% 3,11
Eskubide Sozialak	332	202.576	% 4,64
Garapen Ekonomikoa eta Enpresariala	213	232.112	% 5,31
Herritarrekiko Harremanak	424	334.507	% 7,66
Hezkuntza	461	1.310.154	% 30,00
Kultura eta Kirola	286	355.799	% 8,15
Landa Garapena eta Ingurumena	74	70.943	% 1,62
Lehendakariaren Kabinetea	9	1.434	% 0,03
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	445	801.941	% 18,36
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	53	70.525	% 1,61
Lurralde Kohesioa	48	62.163	% 1,42
Migrazio Politikak eta Justizia	78	157.038	% 3,60
Osasun Departamentua	178	97.531	% 2,23
Osasunbidea	271	241.708	% 5,53
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	132	217.814	% 4,99
Eskaera bereziak	92	75.053	% 1,72
Guztira	3.240	4.367.213	% 100

Iturria: Itzulpen Atala.

Itzulpenen sistematizazioak itzulpenen eskaerak handitzea ekarri du, eta horrek aditzera eman dezake langile publikoek euskararekiko duten sentsibilizazioak ere gora egin duela.

Departamentuek egindako eskaerei erreparatuz, ia heren bat Hezkuntza Departamentuari dagokio; Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barneak ia %20. Alegia, bi Departamentu horiek eskaeren erdiak bideratu dituzte. Gainerako Departamentuen artean

banatzen dira gainerako eskaerak, Lehendakariaren Kabinetea delarik eskaera gutxien bideratu duena (%0,03).

5. HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza paisaiari dagokionez, 103/2017 Foru Dekretuak haxe ezartzen du eremu linguistikoaren arabera:

- **Eremu euskaldunean** dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, **ele bitan idatziko dira** bulego eta egoitzetako errotuluak, materialen, uniformeen eta ibilgailuen errotuluak, inprimaki eta agirietako izenburuak edo idazpuruak, zigilu ofizialak eta identifikaziorako eta seinaleztapenerako edozein elementu.
- **Eremu mistoan** izan eta zerbitzu zentralizat hartzen ez diren administrazio publikoek, erakunde publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek **neurriak bultza ditzakete** bulego eta egoitzetako errotuluak, materialen, uniformeen eta ibilgailuen errotuluak, inprimaki eta agirien izenburuak edo idazpuruak, zigilu ofizialak eta identifikaziorako eta seinaleztapenerako edozein elementu **ele bitan idatziko direla bermatzeko**.
- **Eremu ez euskaldunean**, eremu mistoko arau bera ezartzen da eta salbuespen hau gehitzen zaio: Eremu ez euskalduneko 18. Artikuluak zera dio, *“Aldiz, hizkuntza bakarra erabiliz gero, gaztelaniaz egin beharko dira”*.

Ele biko idazketa formalari dagokionez, bestalde, hau ezartzen du Dekretuak lehen xedapen gehigarrian:

1. Foru dekretu honek errotuluetan, inprimakietan eta edozein motatako dokumentazioan eta komunikazioetan ele biko forma baliozkotzat hartutako kasuetan, oro har, **euskarri fisiko bakar batean eginen da**, artikuluetan euskarri bereziak erabiltzea berariaz baimentzen den kasuetan izan ezik.
2. Berezi errotulazioari dagokionez, ele biko testuek bi hizkuntzetan **tamaina eta ikusgarritasun bera** izanen dute. Testua bi zutabetan idazten bada, **ezkerrean euskarazkoa eta eskuinean gaztelaniazkoa** jarriko dira. Testua goitik behera

idazten bada, **goialdean euskarazko testua jarriko da eta behealdean gaztelaniazkoa.**

Aipatu beharrekoa da Nafarroako Gobernuak ez duela momentuz Erakunde Nortasun Eskulibururik onartu, inguruko Erkidego Autonomoek egin duten bezala. Horren eraginez departamentu bakoitzak (eta horien barruan unitate bakoitzak ere) bere hizkuntza paisaia propioa erabiltzen du, diseinu eta irizpide ezberdinak baliatuz (nahiz eta ohikoa den honen inguruan Argitalpen Atalari kontsulta egitea, honek barne irizpide koherenteak dituelarik). Egoera horri gehitu behar zaio departamentuek espazio berdinak partekatzen dituztela batzuetan, espazioen mugikortasun handia dagoela, egitura aldaketak ere badaudela eta ondorioz horien seinaleztapenean aldaketak egoten direla, etab.

Egoeraren azterketa egiteko, 103/2017 Foru Dekretuak araututakoa jarraituz, 13 departamentuak landu dira, eremu mistoan eta eremu euskaldunean dituzten egoitzak aintzat hartuz, eta ikastetxeak, momentuz, kanpoan utziz (415 ikastetxe daude eta hezkuntza ereduak baldintzatzen dute hizkuntzen kudeaketa).

Jarraian adierazten dira aztertutako egoitzak departamentuka:

Aztertutako Nafarroako Gobernuako egoitzen kopuruak

Departamentua	Egoitza kopurua (EK)	Aztertutako egoitzak (AE) eta ehunekoa	Hizkuntza eremuka					
			Euskalduna		Mistoa		Ez euskalduna	
			EK	AE	EK	AE	EK	AE
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	33	4 (% 12)	9	2	19	2	5	0
Herritarrekiko Harremanak	5	3 (% 60)	0	0	5	3	0	0
Hezkuntza (ikastetxerik gabe)	29	4 (% 14)	4	0	18	4	7	0
Osasuna	103	32 (% 31)	11	9	69	23	23	0
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	4	4 (% 4)	0	0	4	4	0	0
Kultura eta Kirola	86	31 (% 36)	9	8	40	23	37	0
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	3	3 (% 100)	0	0	3	3	0	0
Landa Garapena eta Ingurumena	17	9 (% 53)	9	8	6	1	2	0
Ekonomia eta Ogasuna	8	4 (% 50)	1	1	6	3	1	0
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	1	1 (% 100)	0	0	1	1	0	0
Eskubide Sozialak	17	9 (% 53)	2	2	13	7	2	0
Lurralde Kohesioa	8	8 (% 100)	2	2	6	6	0	0
Migrazio Politikak eta Justizia	14	14 (% 100)	7	7	7	7	0	0
Guztira (ikastetxerik gabe)	328	126 (% 38)	54	39 (% 72)	197	87 (% 44)	77	0 (% 0)

Iturria: Euskarabidea.

Nafarroako Gobernuak dituen 328 egoitzen %38 aztertu da, 126. Eremuei erreparatuz, Nafarroako Gobernuak eremu euskaldunean dituen egoitzen %72 aztertu dira, eremu mistoko egoitzen %44 eta eremu ez euskaldunean ez da egoitzarik aztertu.

Aztertutako egoitzen hizkuntza paisaiaren hizkuntzari dagokionez, 6 maila erabili dira errotulazioaren egoera azaltzeko:

- Euskaraz: errotulazio guztia euskaraz soilik.
- Oro har euskaraz: errotulazioaren erdia baino gehiago euskaraz.
- Ele bitan: errotulazio guztia ele bitan.
- Oro har ele bitan: errotulazioaren erdia baino gehiago ele bitan.
- Oro har gaztelaniaz: errotulazioaren erdia baino gehiago gaztelaniaz.
- Gaztelaniaz: errotulazio guztia gaztelaniaz soilik.

Aztertutako Nafarroako Gobernuaren egoitzen analisia

Hizkuntz paisaiaren egoera	Egoitza kopurua	Ehunekoak
Euskaraz	1	%0,8
Oro har euskaraz	8	%6,3
Ele bitan	74	%58,7
Oro har ele bitan	36	%28,6
Oro har gaztelaniaz	3	%2,4
Gaztelaniaz	4	%3,2

Iturria: Euskarabidea.

Aztertutako egoitzetan euskararen presentzia bermatuta dago aztertu diren egoitzen %94,4an, nahiz eta ez beti oreka eta irizpide egokiak mantenduz.

Amaitzeko, aipatzekoa da aztertutako egoitzetako emaitzak jasoz txostenak egin direla departamentuka. Bertan, aldatzeko dauden euskarriak zeintzuk diren adierazteaz gain, departamentuz departamentu proposamen zehatzak egin dira, eta baita departamentu guztientzako gomendio orokorrak eman ere. Hauek dira egin diren gomendio orokorrak:

- Bi hizkuntzetarako euskarri bakarra lehenestea gomendatzen da, eta biek letra tamaina eta formatu bera izatea. Hala, kolore ezberdinak erabili ahal izango dira hizkuntza bakoitzaren identifikazioa errazteko, bien koloreen arteko kontrastea handiegia izan gabe betiere.
- Kartelen eta errotulazioaren behin-behinekotasuna ahal den neurrian saihestea gomendatzen da, horretarako erabilitako materialen iraunkortasuna eta jasangarritasuna bilatuz.

- Aldi baterako informazio oharrak beharrezkoak izanez gero, kortxoak edo leku komunak erabiltzea gomendatzen da.
- Hizkuntza paisaiaren diseinuan homogeneotasuna gomendatzen da, gutxienez egoitza mailan, irudi korporatiboa zaintze aldera.
- Hizkuntza paisaiak irisgarritasun irizpideak bete behar ditu, Irisgarritasun Unibertsalerako ekainaren 14ko Foru Legeak dion bezala, eta hizkera inklusiboan eta ez-sexistan egon behar du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak arautzen duen moduan.
- Egoitza bakoitzean hizkuntza paisaiaren jarraipena egiteko erreferentziazko pertsona bat izendatzea gomendatzen da, batez ere egitura organikoa aldatzen den uneetan.

6. HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN DIOTEN KONTRATAZIO PUBLIKOAK

Gobernuak lizitazio bidez zerbitzuak kontratatu ditzake, eta askotan zerbitzu hauek herritarrei arreta zuzena ematea suposatzen du. Hortaz, nahiz eta Foru Administrazioiko langileak ez izan herritarrarekin harremanetan, garrantzitsua da zerbitzu horien baldintzetan ele biko arreta bermatzeko neurriak hartzea. Lehenengo plangintza honetan ez da berariaz helburu hau jorratu. Baina eskaera egin duten departamentuei Euskarabideak aholkuak eman dizkie kontratazio baldintzak idazterakoan. Kontuan hartu behar da baldintza mota ezberdinak ezarri daitezkeela, eman beharreko zerbitzuaren arabera, eta kontratazio baldintza bezala edo puntuak lortzeko bide bezala ere planteatu daitezkeela.

Foru Administrazioak egiten dituen lizitazioak hizkuntzaren ikuspegitik aztertzerik ez dago momentuz, ez bada departamentuen eskaerei erantzunez, hortaz, beharrezkoa litzateke lizitazio hauek modu eraginkor batean sailkatzeko bidea bilatzea. Kontuan hartu behar da, halaber, Gobernuak bere zerbitzuak esleitzeko bestelako moduak ere badaudela, beste kontratu, deialdi edo hitzarmenen bidez edo beste izaera duten erakundeen bidez (sozietate publikoak nagusiki). Sozietate publikoen kasuan, hauen izaeragatik eta departamentu zehatz bati esleituta dauden heinean, dagokion departamentuaren hizkuntza plangintzan sartzea aztertu daiteke, izan ere 16 enpresa hauetako 1.200 langileen bidez herritarrei arreta zuzeneko hainbat zerbitzu publiko eskaintzen baitira.

5. Ondorioak

Atal honetan, aurreko datuen analisietatik abiatuz, ebaluazioaren ondorio nagusiak atera eta aurrera begirako proposamenak ere egingo dira, hurrengo hizkuntza plangintzaldiari begira.

Nafarroako Gobernuaren tamaina handiko erakunde konplexua da, plantillan 24.308 langile ditu (17.121 irakaslerik gabe) Nafarroa osoan sakabanatutako 743 egoitzetan banatuta, eta lehen hizkuntza plangintzaldia izan da honakoa. Hori kontuan hartuz eta helburuen betetze mailari dagokionez, kasu askotan egoeraren ezagutza eta hizkuntza diagnostikoan oinarritu dira lanak, hurrengo plangintzaldirako oinarriak ezarri.

Ondorio orokor moduan agerian utzi beharra dago Foru Administrazioako plantilla organikoan dauden euskarazko eskakizunen kopurua ez dela nahikoa herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ele bitan eskaini ahal izateko, ezta eremu euskaldunean ere. Horrek, langileen euskararen ezagutzari buruzko informazio faltarekin batera, hizkuntza plangintzaren garapena baldintzatzen du. Hala ere, aurkeztutako emaitzak ikusita, Nafarroako Gobernuak hizkuntza plangintzaren koordinaziorako ardura unitate bati esleitzeak (kasu honetan Euskarabideko Aholkularitza Atala) aurrerapauso handia izan dela agerian geratu da.

Azpimarratzekoa da lehenbiziko plangintzaldi honek lan eredu bat artikulatzea eskatu duela, hizkuntzaren kudeaketa zeharkakotasunez integratzea izan baita helburua: departamentuak antolatzea, gaitzea eta zeregin horretan laguntzea. Azken helburua departamentuek modu autonomoan eta koordinatuan hizkuntzen kudeaketa antolatua izatea litzateke, eta lehen hurbiltze honetan, besteren artean, gaiarekiko sentsibilizazio eta prestakuntza lanak egin dira.

Aintzat hartu behar da langile elebidunen kopurua emendatu bitartean prestakuntzak eta itzulpenak pisu handia izango dutela hizkuntzaren normalizazio prozesuan. Eta hasiera hauetan prozesua bera artikulatu, funtzionamenduan jarri eta erritmoa hartzen joateko departamentuei eskaini beharreko aholkularitza lanak ere intentsitate handia beharko duela. Halaber, azpimarratzekoa da momentuz soilik Foru Administrazioaren egituraren eragiten hasi dela, baina zerbitzu publikoak ikuspegi zabaletik hartuz gero, Nafarroako sektore publikoaren

eta beste administrazio publikoen dimentsio osoari erreparatzea dago egiteke, hizkuntza plangintzaren arloan.

Beste ondorio nagusi bat izan da hizkuntza planen bidez agerian geratu direla Nafarroako Gobernuak dituen hainbat prozedurazko hutsune, zeharka hizkuntzen kudeaketan eragina dutenak, esate baterako arretagune, telefono eta webguneen atomizazioa, Erakunde Nortasun Eskulibururik onartua ez izatea edo elebitasuna bermatu ezin duten plataforma informatikoak erabiltzea.

Jarraian ondorioak hizkuntza planen helburuen arabera zehaztuko dira:

LANGILEEN EZAGUTZA, HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA PRESTAKUNTZA BEHARRAK

Esan bezala, momentu honetan Nafarroako Gobernuak ez dauka langileen euskararen ezagutza maila zein den jakiteko sistema antolaturik. Ondorioz, ez dago 24.308 langile horiek duten euskara gaitasunaren datu zehatzik. Datozen urteetan datu hau eskuratzeko neurriak hartzea estrategikoa izango da, langileen euskararen ezagutza datuak bete betean baldintzatzen baitu zerbitzua bi hizkuntzatan emateko gaitasuna, eta, halaber, baldintzatzen dituelako helburu hori lortzeko planifikatu beharreko neurriak.

Lanpostu elebidunei dagokionez, gaur gaurkoz eta irakasleak kontuan hartu gabe oinarrizko plazen %3,27k dauka hizkuntza eskakizuna (aurrerantzean HE) ezarrita. Kopuru horrek ez du Nafarroako Administrazioako langileen ezagutzaren argazki zehatzik eskaintzen, nagusiki lanpostuek HE ezarrita izan ez arren, badirelako langile euskaldunen kopuru garrantzitsu bat lanean. Zentzu horretan Administrazioak bere datu basean dituen langileen datuen artean euskara gaitasuna gehitzeko lan egitea komenigarria litzateke, langile horien ezagutza zerbitzu elebiduna modu antolatuan emateko neurri eraginkorragoak hartzea baliatzeko aldagaia baita.

Lanpostuen %3,27ak hizkuntza eskakizuna izateak ez du bermatzen legeak ezarritako herritarren hizkuntza hautua errespetatzea. Esan bezala, beraz, zerbitzu beharrak aztertu

eta gero administrazioko lanpostu gehiagori HE ezartzea eta, beharrezkoa denean, langileak euskaraz gaitzea oinarrizkoa izango da zerbitzu elebiduna eskaintze aldera.

Norabide horretan urratsak eman dira plangintzaldi honetan, eta horren erakusgarri da, oraindik onartu gabe badago ere, departamentuek egin duten plaza elebidun berrien proposamena. Orain arte 481 oinarrizko plazek zeukaten HE ezarrita. Proposamen berriek beste 219ri ezartzea planteatzen dute. Ordea, hizkuntza eskakizuna ezarrita duten plazen kopurua oinarrizko plaza kopuru orokorrarekin harremanetan jarrita, langileen %3,27k ezarrita izatetik, langileen %4,76 ezarrita izatera pasatzen da.

Datuak hizkuntza eremuaren arabera aztertuz ikus daiteke plaza elebidunen proportziorik handiena eremu euskaldunean dagoela eta proposamen berriak ere bertarako zehaztu dituela plaza proportziorik altuenak: eremu euskaldunean plazen %27,19 HE ezarrita izatetik %39,6k ezarrita izatera pasatzea proposatu da. Aintzat hartuz eremu horretan euskara ofiziala dela eta Administrazioak herritarren hizkuntza hautua bermatzeko betebeharra duela, joera horri eutsi eta datozen urteetan HE kopurua emendatzen joatea beharrezkoa litzateke.

Eremu mistoari dagokionez, proposamenak orain arte dauden plaza elebidunekiko igoera nabarmena badakar ere (%45,9ko igoera, 329 plaza izatetik 480 izatera pasatzea proposatzen baita), eremu mistoko langile kopuru absolutuarekiko oraindik ere lanpostu kopuru txiki batek (%2,66 izatetik %3,88 izatera pasako litzateke) du HE ezarrita. Aintzat hartuz eremu mistoan Nafarroako Foru Administrazioko zerbitzuak neurri handi batean zentralizatzen direla eta eremu euskalduneko herritarrek ere eremu mistoan kokatutako zerbitzu zentralen bidez zerbitzuak jasotzen dituztela, goranzko joera horri eutsi eta datozen urteetan lanpostu gehiagotan HE ezartzea aurrerapausoa litzateke.

Eremu ez euskaldunean, aldiz, soilik 3 plazek daukate ezarrita HE, bertako lanpostuen % 0,17a. Lanpostu gehiagori eskakizuna ezartzea ez da proposatu.

Departamentuetako datuei erreparatuz, proposamenetan jasotakoa aurrera eramanez gero, ez legoke HE ez lukeen departamenturik. Bost dira HE gabeko departamentuak, eta guztiek egin dute proposamen bat.

Laburbilduz, beraz, departamentu guztietan eta eremu euskaldun eta mistoan, beren beharretatik abiatutako eta aurrera egiteko proposamena landu da. Dauden lanpostu elebidunekiko igoera esanguratsua dakar proposamenak, baina langileen kopuru absolutuekin konparatuz, proportzio txikian ezartzen dira HEak. Horrek zaildu egiten du herritarren hizkuntza hautua errespetatzea.

Bigarren plangintzaldirako gakoa izango da departamentuek egindako HEn proposamena onartzea. Izan ere, prozesua burutu gabe dago eta burutu ezean ezin izanen da urratsik eman HEn esleipenean. Behin onartuta, aztertu beharko da HE duten lanpostuetako langileek duten hizkuntza maila zein den, eta horren arabera prestakuntza beharrak identifikatu eta langile horiek gaitu edo kualifikatzeko ibilbideak diseinatu eta martxan jarri beharko dira. Langile horiek lehentasuna izanen dute Prestakuntza Atalak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeko, eta hemen, baliabideak emendatzeko aurreikuspena egitea garrantzitsua litzateke. Izan ere, gaur gaurkoz, eta HE duten lanpostuetako langileen beharrak aztertu gabe, Prestakuntza Atalak eskaintzen dituen plaza guztiak bete egiten dira borondatez izena ematen duten langileen izen-ematearekin eta gaur egun, dagoeneko, ikastarorik gabe geratzen da izena ematen dutenenen % 18a. Horrek bi ondorio esanguratsu plazaratzen ditu:

- Derrigortasunik izan ez arren badago langileen kopuru esanguratsu bat bere kasa euskara ikasteko hautua egin duena. Hauek euskalduntze bide horretan laguntzen jarraitzea eta hobetzea estrategikoa da Nafarroako Administrazio publikoarentzat, ikusirik gaur gaurkoz ez duela gaitasunik zerbitzu elebiduna bermatzeko.
- HEn proposamena onartzen bada, gerta liteke hainbat langilek euskalduntze eta gaikuntza premiak edukitzea, eta momentu honetan Prestakuntza Atalak eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartzea. Honek egun dauden izen-emateen kopuruak gora egitea ekarriko luke, eta langile hauek zerbitzu horiek jasotzeko lehentasuna izango lukete.

Euskara ikasteko edo hobetzeko ikastaroak egiteko baimenei dagokienez, baimena izateak langileei erraztu egiten die ikasketa prozesua, lana eta bizitza pertsonal eta familiarra kontziliatzea. Baina departamentuei lan karga handitzea edo ordezkari pertsonen kontratazioa

suposatu ahal die, hortaz, aurrera begira departamentuek honen aurreikuspena egitea komenigarria litzateke, eta baita prozesu hau inbertsio moduan ulertzea ere.

Begirada aurrerago jarriz, HE ezartzeko helburu bat adostea egokia litzateke, aurreikuspenak egin ahal izateko eta prestakuntzaren plangintza hobetzeko. Argi geratu da, esate baterako, herritarrekiko harreman telematikoek duten garrantzia, hortaz HE esleitzerakoan ere kontuan hartu behar dira horretaz arduratzen diren lanpostuak.

HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK

Foru Administrazioiko langileen euskararen ezagutza daturen ezean, berariazko galdetegi bat prestatu da ezagutzaren datu aitortuak jasotzeko. Galdetegia ez da plantilla osoaren artean hedatu, soilik eremu euskalduneko langileen artean baizik, euskara hizkuntza ofiziala den eremura. Galdetegia eremu euskaldunera mugatzeak, alde batetik langile kopuru esanguratsu bat aztertu gabe uztea eragin du, eta bestetik zenbait departamentu aztertu gabe geratzea. Izan ere, departamentu guztiek ez dituzte egoitzak eremu euskaldunean. Guztira 593 galdetegi bidali dira eta 92 langileren erantzunak jaso dira: eremu euskalduneko langileen %15,5, eta langile kopuru osoaren %0,4.

Datuen analisisian ikusi bezala, galdetegia erantzun dutenen artean %60ak baino gehiagok adierazi du euskara gaitasun altua hizkuntza gaitasunetan: euskararen ulermen maila altua (%82k ongi ulertzen du eta %12k elkarrizketa sinpleak ulertzen ditu), mintzamen gaitasun altua (ongi egiten dute %65ek, eta %25ek elkarrizketa sinpleak jarrai ditzake) eta datuak zertxobait baxuagoak badira ere konpetentzia idatzi eta irakurrietan, maila altuan irakurtzeko eta idazteko gaitasuna dute euskaraz.

Lanpostuan euskararen erabilera galdetuta, %67k oso ohikoa dela eta %15ak maiz erabiltzen duela adierazi du. Beraz, herritarrekiko harremanean erabilera altua dela esan liteke. Horrek, herritarren hizkuntza hautuaz ere hitz egiten du.

Euskarazko titulazioei dagokionez, %25ak ez du titulaziorik eta %39k C1 maila duela adierazi du. Proporzio altu batek hizkuntza gaitasun altuko titulazioa izan arren, laurden batek

oraindik ez du halakorik. Aintzat hartuz, bestalde, %71,8k adierazi duela euskarari dagokionez trebakuntza espezifikoa behar duela, eremu euskalduneko langileen artean euskara ikastaroen eskaintza aukerak aztertu eta nola artatu aztertzea emankorra izan daiteke.

Galdetegien lanketa hau lehen ariketa gisa aurrerapauso bat izan bada ere, plantilla osoaren argazkia eskuratzeko aukerarik ez du ematen. Bestalde, eremu euskalduneko berezitasunak aintzat hartuz, ezin esan liteke bertako datuek Nafarroako Gobernuako langileen egoeraren isla orokorra ematen dutenik:

- Eremu euskalduneko langileen kopurua plantilla osoarekiko txikia da.
- Bertako langileek proportzio altuagoan daukate HE ezarrita.
- Eremu horretako herritarren ezagutza eta erabilera datuak gainerakoetan baino altuagoak dira.

Euskara ofiziala den eremuan ariketa hau egin izana, partzialki bada ere, lehen gerturatze bat egiteko baliagarria izan bada ere, aurrera begira datu bilketa modu orokortuago batean egitea eta adierazgarria izango den laginketa bidez gauzatzea beharrezkoa izango da.

Identifikazioari dagokionez, HE ezarrita daukaten langileei eta hala eskatu duten lehentasunezko untitateetako langileei identifikagarriak banatu zaizkie. Herritarren euskararen erabilera aktibatze baliagarria den neurrian, aurrera begira arreta euskaraz egiteko gaitasuna duten langile gehiagorengana halako euskarriak hedatzea aurreikusten da. Bestalde, Euskaraldiak lehenetik ere Departamentuetan egiten ari den lanketari estalpe orokorra eta gizartearekin bat egiteko aukera eskaini du. Aurrerantzean ere ekimen honen bultzada baliatzen jarraitzea aurreikusten da.

HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK

Nafarroako Gobernuak sortzen duen idatzizko produkzioaren tamainagatik, sortutako testuen artean leheneste ariketa bat egin behar izan da. Zerbitzu hizkuntzan (hau da, lan hizkuntzari lotutako barne dokumentuak aurreragorako utziz), herritarrekiko harremani

begira duen garrantzi eta inpaktua aintzat hartuz, dokumentu, euskarri, webgune eta abarrekoetan eragitea erabaki da.

Eduki digitalei dagokienez, produkzio mailaz gain ere beste bi faktore daude ele biko zerbitzua eskaintzerako orduan kontuan hartu beharrekoak. Alde batetik, edukiak oro har dinamikoak direla, eta kasu askotan eguneratze tasa altuarekin, horrek edukien itzulpenen etengabeko behaketa suposatzen duelarik. Beste aldetik, eduki digitalak argitaratzeko momentuan aldiberekotasuna bermatzeak arazo teknikoak ekarri ditzake, ondorioz euskarazko bertsioa beranduago argitaratzen delarik.

Aurrera begirako erronka moduan, eta itzulpenaren arloan gertatzen ari diren aurrerapen garrantzitsuak baliatuz, sortzen diren idatzizko komunikazioen elebitasuna bermatzeko sistema edo lanaren antolamendu berriak aztertu beharko lirateke.

Jarraian ondorioak datuen analisisian erabilitako idatzizko komunikazioaren banaketaren arabera zehaztuko dira:

WEBGUNEAK

Nafarroako Gobernuak eta bere departamentuek webgune ugari dituzte, eta horien kudeaketa ez dago zentralizatuta. Horrek zaildu egiten du eduki guztietan eragitea. Hori dela eta, leheneste ariketa egin da, herritarrengan eragin handiena dutenak aukeratuz.

Webguneen artean bi mota nagusi daude: korporatiboak eta departamentuetako bestelako webguneak. Korporatiboen artean nagusia den nafarroa.eus atariaren egitura eta edukiak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiaren barruan dagoen Navarra.es Atariaren Atalak kudeatzen ditu. Azken 3 urteetan egin den eguneratze prozesuaren baitan elebitasuna txertatu da eta horri esker bertan jorratzen diren 20 gaiak ia bere osoan bi hizkuntzatan daude. Halere, ez da lortu webgunea bere osoan bi hizkuntzatan egotea, legeak dioen moduan. Datozen urteetan webgune honetako atalak bi hizkuntzatan emateko lanketari segida emango zaio, baita aldikako birpasantzeari ere, edukien eguneratzea ere elebiduna izatea bermatzeari begira. Bestalde, Gobernu Irekia, Nafarroako Turismoa eta Kontratazio atariari dagokienez, 2019an lehenbiziko biak elebitan eta

hirugarrena gaztelaniaz zeuden eta 2022an denak elebitan, hortaz hauekin ere berdin jokatu da.

Departamentuetako gainerako webguneei dagokienez, atomizazioa handia da: 249 webgune identifikatu dira. Eta horien heterogeneotasuna ere oso handia da: jabe, editore eta kudeatzaile desberdinak dituzte, lantzen dituzten edukien nolakotasuna oso anitza, xede taldeak desberdinak, inpaktu maila desberdina, etab. Hori dela eta horien artetik 6 nagusienak aztertu dira: 4 webgune 2019tik elebitan zeuden eta 2022an guztiak daude elebitan. Aurrera begira beste webguneen azterketa sistematizatu beharko litzateke.

TRAMITE ELEKTRONIKOAK

Herritarrekiko harremanetan duten garrantziagatik tramiteak bi hizkuntzatan eskaintzeko lanketa egin da. Tramiteetako edukiak Departamentuetako editore ezberdinek kudeatzen dituzte eta honek sakabanaketa handia dakar. Hala ere, lanketa mamitsua egin da urte osoko tramiteei dagokienez: 2019an tramiteen % 17,26a elebitan eta eguneratuta egotetik, 2022an tramiteen % 75,43 elebitan eta eguneratuta egotera pasa da. Datozen urteetan norabide horretan pausoak ematen jarraituko da, eta aldikako tramiteei ere helduko zaie (lehen plangintza honetan pilotaje bat egin da).

SARE SOZIALAK

Nafarroako Gobernuko sare sozial nagusien % 40a ez dago ele bitan, eta herritarrarekiko harremanean sare hauek duten irisgarritasuna eta interakzio gaitasuna aintzat hartuz, aurrera begirako plangintzetan lan ildo hau zabalduko da. Lanketa honi begira, aintzat hartzekoa izango da testu hauen bizitasun eta abiada. Izan ere, momentuko erantzunak pisu estrategikoa du sareen erabileran, eta itzulpen atalak eskatzen duen prozedurak denboran luzatzea ekarriko du. Horrexegatik sareen kudeatzaileek beraiek lan hori euskaraz ere egin dezaten neurriak hartzea beharrezkoa izanen da.

HERRITARRENTZAKO ETA INSTITUZIOETARAKO KOMUNIKAZIOAK

Euskararen Legeak eremu euskalduneko udal eta herritarrekiko harreman hauek euskaraz bermatzeko betebeharra ezartzen badu ere, egindako azterketak agerian utzi du gaur gaurkoz ez dela betetzen. Unitateek aitortutako zailtasun handiena izan da ez dagoela baliabide nahikorik legeak ezartzen dituen epeen barruan ele bitan dokumentuak

prestatzeko. Bestalde, harreman hauetan hizkuntza aukeratzeko sistema ere ezartzeke dago, hizkuntza ofizialetako bat aukeratzeko eskubidea baitute ere (horren ezean, ele bitan idatzi beharko da). Arlo honetan aurrerapausoak emateko Toki Administrazioako Zuzendaritzarekin eta eremu euskalduneko toki entitateekin elkarlana ezinbestekoa suertatuko da. Bestelako komunikazio idatziak modu sistematikoan aztertzea ere erronka izango da.

ALBISTEAK

Albisteak oro har elebitan ematen badira ere, gehienetan (% 69) albistearen laburpen bat baino ez da euskaraz eskaintzen. Aurrera begira eraginkorragoa litzateke albisteak hasieratik euskaraz eta gaztelaniaz sortzea, aldibereko eduki elebidunak argitaratu ahal izateko. Izan ere, arintasuna behar duen dinamika izanik (albistek gaurkotasuna galtzen baitute denborak aurrera egin ahala), itzulpena kanpoan egin behar izateak zailtasun gehigarriak ditu, bereziki kontratatutako zerbitzuak beharrezko lanei aurre egiteko ahalmenik ez duenean.

KOMUNIKAZIO KANPAINAK

Nafarroako Gobernuaren publizitate kanpainen kudeaketaren ardurak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiarena da, eta guztiak ele bitan daude 2016 urtetik aurrera.

Aurrera begira, bi erronka aurreikus daitezke. Batetik, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak egindako bideari eustea. Bestetik, egiteko modu hori aztertu, dokumentatu eta departamentuek beren kabuz kanpainak egiten dituztenean irizpide horiek aintzat hartuz jokatzeko neurriak hartzea. Irizpide horiei dagokienez, kanpainetan gero eta ohikoagoak diren bideoen hizkuntza kudeaketa sakonago aztertu eta adostu beharreko gaia da, ahozko hizkuntzari dagokiona alde batetik, eta azpтитuluen hizkuntza edo hizkuntzak bestetik.

ARGITALPENAK

Departamentuek zer argitaratu erabakitzen badute ere, Argitalpenen Atala da argitaratzen diren euskarriak koordinatu eta horiei buruzko aholkuak ematen dituenena. Atalak emandako datuek erakusten dutenez, argitaratzen diren kartel gehienak ele bitan daude, gaztelaniaz

eta euskaraz, bai hedapen orokorreko helburuagatik, bai formatu eta mezu laburrengatik, ele biko testuen irakurgarritasuna errazten baitute. Hala ere, liburuen eta liburuxken artean jaitsi egiten da ele biko inprimakien proportzioa, gaztelaniazko eta euskarazko edizio bereziak aukeratu baitira gehien. Eta aipatzekoa da kasu horietan, proportzio handi batean ez dela bermatzen euskarazko bertsioa. Agerikoa da, halaber, eremu akademikotik idatzitako eta publiko espezializatuago bati zuzendutako titulu asko gaztelaniaz bakarrik argitaratzen direla.

Aurrera begira, Nafarroako Gobernuak argitalpen guztiak ele bitan egin daitezkeen bermatzeko prozedura ezarri beharko da, eta bide horretan lagungarria da ele biko edizio edo euskarri bakarra sortzea, izan ere bi edizio edo euskarri ezberdinetan egitean euskarazko bertsioa sarritan bidean galdu egiten dela ikusi da. Liburuen kasuan, garrantzitsua da kontuan hartzea gehienetan egilea ez dela Gobernuak langilea, eta hortaz itzulpen espezializatuaren bidea erabili behar dela (horrek suposatzen duen lan kargarekin, bereziki gai teknikoa denean edo hizkuntza literarioa erabiltzen denean).

ITZULPEN ZERBITZUA

Itzulpenflow sistemak itzulpen eskaerak unitateka antolatzea eta epe mugak ezartzea suposatu du, eta honek eskaeren kopuruaren handitze nabarmena ekarri du, Itzulpen Ataleko lan karga ere handituz. Hurrengo pausu bezala, itzulpengintzarako irizpide orokorrak ezarri beharko lirateke, eta horiek, besteren artean, itzulpen eskaeren artean lehentasunak jartzen lagunduko lukete.

Horrekin batera, sortze hizkuntza euskara izaten joan dadin, egun teknologiak eskaintzen dituen baliabideak (itzultzaile neuronalak kasu) langileen artean hedatu eta horiek erabiltzen trebatzea lan ildo izan beharko luke.

HIZKUNTZA PAISAIA

Erakunde Nortasun Eskulibururik ez izatea oztopo garrantzitsua da Nafarroako Gobernuaren egoitza eta unitateen hizkuntza paisaiaren koherentziari dagokionez. Bateratasun falta

nabaria da, ez bakarrik hizkuntza irizpideetan, baita diseinu eta formatuetan ere. Ondorioz, hizkuntza paisaiaren azterketatik datozen moldaketek elebitasunean eragina izanen dute, baina oinarrizko arazoari konponbiderik eman gabe. Edonola ere, egindako azterketak agerian utzi du Gobernuko langileen artean normaltasunez erabili izan dela elebiko irizpidea hizkuntza paisaian. Alde horretatik, irisgarritasun unibertsalarekin lotutako garapenak aukera bat izan daitezke euskara sistematikoki hizkuntza paisaian txertatzeko.

Begirada etorkizunean jarriz, Erakunde Nortasun Eskuliburua onartzeaz gain, egoitzen azterketa zabaldu beharra dago, Gobernuko egoitza guztietara heldu arte, eta azterketa hauen aldikako jarraipena antolatzeko sistema ezarri behar da, egindako proposamenak aurrera eraman direla bermatzeko eta egitura aldaketen ondorioz moldaketarik egon den aztertzeke. Bestalde, departamentuek egoitza berri bat egiteko proiektua martxen jartzen dutenean, hasieratik elebitasuna kontuan hartzeko prozedura ere ezarri beharko litzateke, azpiegituretaz arduratzen diren unitateekin koordinatuz.

HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN DIOTEN KONTRATAZIO PUBLIKOAK

Nafarroako Gobernuak kontratazio publikoaren bidez herritarrekiko harreman zuzena izan dezaketen zerbitzu batzuen kudeaketa enpresei esleitzen dizkie. Hainbat kontratazio publikotan normaltasunez elebitasuna bermatzeko baldintzak ezarri diren arren, baldintza hauek modu antolatuan zabaltzea konplexutasun handiko lana da eta departamentuengandik jasotako informazioaren arabera lehentasunak ezartzea suposatuko du. Aurrera begirako lanek suposatuko dute kontratazio publikoen tipologia eta kopurua aztertzea, ezarri beharreko baldintzak bateratzea eta zerbitzuen bestelako esleipenen (hitzarmenak edo sozietate publikoei enkarguak kasu) ezaugarriak aztertzea horietan ere hizkuntza baldintzak ezartzeko.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua




euskarabidea